

EUSKARAZKO ALFABETATZEA EUSKAL HERRIKO LANDA ESKOLETAN (1900-1939)^{& §}

*Alfabetización en euskara en las escuelas rurales del País Vasco
(1900-1939)*

*Basque-language literacy in rural schools in the Basque Country
(1900-1939)*

Joxe Garmendia Larrañaga[§]; Iñaki Zabaleta Imaz[†]
eta Hilario Murua Cartón[‡]

Fecha de recepción: 06/03/2017 • Fecha de aceptación: 03/11/2018

Laburpena. xx. mendeko lehen herenean Euskal Herrian martxan zegoen modernizazio prozesuak irakaskuntzan ere eragin izan zuen. Hala ere, urte horietan, baserri eta landa-gunetan analfabetismo-tasa altuak ziren eta bertako populazioa euskal hiztuna. Egoera hau aldatzeko Bizkaiako eta Gipuzkoako Diputazioek bi esperientzia abiarazi zituzten. Bizkaiako auzo-eskolak (1919-1938) eta Gipuzkoako landa-eskola (1930-1938). Bizkaiako auzo-eskolek, sorreran, euskal eskola eta proiektu elebiduna garatzea nahi izan zuten baina aldaketa politikoek proiektu hau baldintzatu zuten. Gipuzkoako landa-eskolen kasuan, helburua zegoen instrukzio kaxkarrari erantzuna ematea zen. Jarraian dugun lan honen helburua zera da landa-eremuan garatutako bi esperientzia hauek konparatzea,

[&] La versión en castellano de este artículo se publicó en *Historia y Memoria de la Educación* 7 (2018).

[§] Artikulu hau Ekonomia, eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatutako EDU2013-44129-P zenbakia duen ikerketa-proiektuaren emaitza da. Egileak, Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Garaian Taldeako partaideak dira. Eusko Jaurlaritzak IT 911-16 zenbakiarekin aitortuta.

[§] Departamento de Teoría e Historia de la Educación. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Avda. de Tolosa, 70, 20018 Donostia-San Sebastián. España. joxe.garmendia@ehu.eus

[†] Departamento de Teoría e Historia de la Educación. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Avda. de Tolosa, 70. 20018 Donostia-San Sebastián. España. i.zabaleta@ehu.eus

[‡] Departamento de Teoría e Historia de la Educación. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Avda. de Tolosa, 70. 20018 Donostia-San Sebastián, España. hilario.murua@ehu.eus

non euskarazko eta gaztelaniazko alfabetatzea elkarrekin erlazionatzen dira.

Hitz gakoak: Landa-eskola; Euskal Herria; Alfabetatzea; Nazio identitatea.

Resumen. *En el primer tercio del siglo xx se produce en el País Vasco un proceso de modernización que afectó a la enseñanza en general. En esta época en las zonas rurales todavía había altas tasas de analfabetismo y la población era vascoparlante. Con el objetivo de paliar esta situación las Diputaciones de Bizkaia y Gipuzkoa pusieron en marcha dos experiencias: Las Escuelas de Barriada en Bizkaia (1919-1938) y las Escuelas Rurales Provinciales en Gipuzkoa (1930-1938). Aunque en sus inicios, las escuelas de barriada de Bizkaia pretendieron desarrollar una escuela vasca y un proyecto bilingüe, los cambios políticos condicionaron este proyecto. En el caso de las escuelas provinciales de Gipuzkoa, el objetivo era suplir la insuficiencia de instrucción. El objetivo de este trabajo es comparar estas dos experiencias de alfabetización desarrolladas en un ámbito rural, en las que se interrelacionan la alfabetización en castellano y en euskara.*

Palabras claves: Escuela rural; País Vasco; Alfabetización; Identidad nacional.

Abstract. *In the first third of the twentieth century, the Basque Country underwent a modernizing process that affected general education. Given that there were still high rates of illiteracy in rural areas and the populations were Basque-speaking, in an attempt to increase literacy the provincial councils of Bizkaia and Gipuzkoa put two different programmes into motion. Bizkaia established «escuelas de barriada», or neighbourhood schools (1919-1938), and Gipuzkoa instituted the rural provincial schools (1930-1938). Although the neighbourhood schools in Bizkaia began by trying to create Basque schools that were bilingual, political changes influenced the project. In the case of the provincial schools in Gipuzkoa, the goal was to combat the lack of instruction. The objective of this study is to compare these two rural literacy programmes in which literacy in Spanish and in Basque were intertwined.*

Keywords: Rural schools; Basque Country; Literacy; National identity.

HITZAURREA

Euskal Herrian xx. mendearen hasieran industrializazioa prozesua martxan egon arren, oraindik baserri mundua nekazaritzan oinarritutako gizarte tradizionala zen, bertan pobrezia nagusitzen zelarik. Baserritarren bizitza soziala, familiar, katolizismoan, ohitura zaharretan eta landa-munduaren kultura tradizionalan oinarrituta zegoen, eta euskara bere ohiko hizkuntza zuten. Baserri gehienek kokapen geografikoak, hiriguneetatik oso urrun egonik, balio tradizional erlijiosoen eta ohitura zaharrak mantentzen lagundu zuen. Dena dela, testuinguru honetan ere, pixkanaka-pixkanaka, aldaketa sozio-ekonomiko sakona eman zen. Horrela, baserri-mundua bere egituretan eboluzionatzen joan zen, gizarte hiritar eta industrialago bihurtuz baina hein batean bizimoduak eta baserri-pentsamoldea mantenduz.¹ Honen adierazgarria dira jauntxokeriaren presentzia eta indar politiko tradizionalak izan zuten botere politikoaren monopolioa. Landa-eremuan jauntxo handien eta kleroaren eragin politikoa nabaria zen eta hauek udalerrri eta lurraldeko boterea kontrolatzen zuten.²

Euskal Herrian ematen ari zen aldaketa sozio-ekonomikoak eragin zuzena izan zuen bertako hezkuntza eremuan. Alfabetatze eta eskolatze tasak baxuak izan arren, hemengo tasak Espainiako lurraldeek gehien baina altuagoak ziren. Alfabetatze eta eskolatze prozesu hauek eskolaren funtsezko helburuak izanik, euskal kasuan beste berezitasun bat ematen zen, Bizkaiko eta Gipuzkoako landa-guneko irakaskuntza ia biztanle gehienek ohikoa ez zen hizkuntza batean ematen zela. Egoera hau gainditzeko alderdi foruzale eta abertzaleek proposamen desberdinak egin zituzten. Proposamen hauekin eta landa-eskolak protagonista izanik alfabetatze esperientzia paraleloak bultzatu zituzten, baina eskola hauen garapena beti aldaketa politikoei egon zen baldintzatuta.

Probintziako erakundeek landa-eremuan bultzatutako lehen esperientzia Bizkaiko auzo-eskolen esperientzia izan zen, gero Gipuzkoako landa-eskolak etorri ziren. Eskola hauetan, hezkuntza ikuspegiari dago-

¹ Jesús Arpal, Begoña Asua y Paulí Davila, *Sociedad y Educación en el País Vasco* (San Sebastián: Txertoa, 1982).

² Joxe Garmendia, *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los Ayuntamientos, 1900-1950* (Bilbao: Universidad del País Vasco, 2004), 63. Elizjendea erabaki guztietan ezinbesteko elementua zen. Gai honetan sakontzeko begiratu daiteke Luis Castells, *Modernización y dinámica política en la sociedad Guipuzcoana de la Restauración (1876-1915)* (Madrid: Siglo XXI, 1987).

kionez, oso kontutan hartu izan ziren garaiko ekarpen pedagogikoak eta baita Eusko Ikaskuntzaren kongresu desberdinetan azaldutako iritziak. Kongresu hauetan herrialdearen errealitatearen araberrako hezkuntza-politika garatzearen beharra azaldu zen eta landa-eskoletan euskara bultzatzea proposatu. Ikuspuntu honen sustatzaile eta suspertzaileak, batez ere, erakunde abertzaleak izan ziren. Eragile hauek euskarazko irakaskuntza aldarrikatzen zuten, euskal kultura eta identitatea indarberritzeko oinarritzko elementu bezala. Baina zeregin honetan, indar monarkikoak aurka izan zituzten, pentsamolde abertzaleak hedatzeko tresna gisa ikusten baitzuten ekarpen hau. Beraz eskola hauek ekarpenak aldatuta politikoei lotuta egongo dira, bere ezarpena eta hedapena baldintzatuz. Bi esperientziak konparatzea lan honen funtsezko helburua da.

LANDA-GUNEKO ALFABETATZEA

XIX. mendean, irakaskuntzaren estatalizazioaren sistema nazionalen eraikuntza prozesuan hasierako mugarrria izan zen. Nazioaren ideia gauzatu nahi da, subjektu politiko bezala ulertuta, eta lurralde jakin batean herritarrak hezitzeko gai izango den hezkuntza sistema bat eraiki. Hobsbawm-ek, ezaguna den bezala, «nazioak eraikitzea» kontzeptuaz arituko da eta eskolaren eginkizuna, helburu hau lortzeko estatuek abiarazi zuten ingeniari-tza politikoan kokatuko du.³

Espainiaren eta Frantziaren kasuan, bakoitzaren nazio-hizkuntza eta hezkuntza sistema ondo zehaztutako estatuko mugen barrutian babestu zituzten; eta aldi berean, lege-sistema amankomunak sortzen saiatu ziren —eta lortu ere bai—.⁴ Argudiatu da neurri hauek kultur homogeneizazio premiak behartuta hartu zirela, dena dela, neurri hauek garatzen doan modernizazioa prozesuan testuinguruan ulertu behar dira. Prozesu honek, eskolaren bidez kultura homogeen transmititzeko beharrezkoak izango ditu Estatuaren hizkuntzan alfabetatuko norbanakoak. Gellner-en ikuspegiak, nolana ere, agerian uzten du Estatuak hezkuntza-sistemaren bidez garatu duten nazionalizazio prozesuan kulturak eta hizkuntzak duten garrantzia.⁵

³ Eric J. Hobsbawm, *Naciones y nacionalismo desde 1780* (Barcelona: Edición Crítica, 1991).

⁴ Leonard Tivey, *El Estado Nación* (Barcelona: Nova Gráfico, 1987), 25-54.

⁵ Ernest Gellner, *Naciones y nacionalismos* (Madrid: Alianza 1988), 347.

Testuinguru honetan Frantziako eta Espainiako estatuak erronka nagusi bati aurre egin behar izan zioten: beraien komunitate kontzeptua gauzatzea, benetakoa bihurtzea, eta asmo hau garatzeko, frantses eta espainiar hizkuntzak eta kulturak funtsezko garrantzia hartu zuen. Azken batean, perspektiba horretan bi estatuok garatutako hezkuntza-politikak, estatu-nazioa osatuko luketen herritarrei bideratuta izan dira, eta ildo horretan, kultura eta hizkuntza batasuna lehenetsi da bakoitzaren politika ezartzerako orduan. Espainiako estatuaren kasuan, azpimarratu behar da nazio identitatea eraikitzeke zegoen zailtasuna; Espainiako ideologia nazionalista gutxi errotuta zegoen proiektu demokratiko eta modernizatzaileekin.⁶ Horrela, nahiz eta Euskal Herriko eskoletan irakaskuntza ia erabat gaztelaniaz edo frantsesean izan, honen eragina ez da izan hain nabarmena, bereziki landa-gunetan, euskara zelako bertako biztanleen hizkuntza arruntena eta kasu askotan bakarra, ondorioz euskal kulturak eta hizkuntzak gaurdaino iraun du. Ezin dugu ahaztu euskal identitatearen eraikuntzak arrazoi soziolinguistikoek mugatu dutela —euskarak ez du hedapen berdina lurralde guztietan— eta baita ere, urtean aurrera joan diren heinean, gaztelera-erazko eskolak eta administrazioak bere zabalkundean handitzen joan dela.⁷

Horrela, Tradizio-Modernitatea gatazkaren ildotik jaiotako Espainiako Estatuaren XIX. mende bukaerako indar tradizionalista eta euskaltzaleekin izango duen harremana berdefinitzen hasiko da. Indar hauek, era berean, bere hizkuntza eta kultura babestu ezik, euskal lurraldearen instituzionalizazio politikoa eskatzen hasiko dira.⁸ Euskal identitatearen eraikuntzari dagokionez, bi ikuspegi ezberdinez hitz egin daiteke: batzuen iritziz, foruzaletasuna eta karlismoa euskal nazionalismoaren aurrekariak dira, besteen arabera foruzaleen diskurtsoa, espainiar nazionalismoaren bertsio euskalduna da.⁹

⁶ Estatuaren modernizazio prozesuan, XIX. mendeko aurrekari historikoak kontutan hartu behar dira. Ikus Xosé Manoel Núñez Seixas, *Los nacionalismos en la España contemporánea siglos XIX y XX* (Barcelona: Hipòtesi, 1999). 1990eko hamarkadan nazionalizazio ahulari buruz garatutako tesiari dagokionez, honako lanak aipa ditzakegu: Borja de Riquer: *Escolta Espanya. La cuestión catalana en la España liberal* (Madrid: Marcial Pons, 2002) eta José Álvarez Junco, *Mater Dolorosa. La idea de España en el siglo XIX* (Madrid: Taurus, 2001).

⁷ Pauli Dávila, «Euskal Herria tiene forma de corazón», *Historia de la educación* 27 (2008): 215-243.

⁸ Francisco Letamendia, *El hilo invisible* (Bilbao: EHU/UPV, 2013), 302-303.

⁹ Coro Rubio, *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales* (Madrid: Biblioteca Nueva, 2003).

Testuinguru honetan, autonomia administratiboa eta hezkuntza-sistemaren modernizazioa, ezinbesteko gakoak izango dira herriaren eraldaketa sozial eta ekonomikoan. Alfabetatze tasa handiagoak lortzea modernizazio-prozesuaren giltzarri bihurtuko da eta homogeneizatze kultural eta linguistikoa honetan, eskola izango da eragile nagusia, bai Espainiako estatuarentzat eta baita euskal nazionalismoarentzat.

Espainiako Estatuan, xx. mendeak, hezkuntza, kultura eta arlo sozialean eraldaketa nabarmenak ekarri zituen. Espainiako lege-markean honako hauek dira mugarri aipagarrienak: Instruzio Publikoko eta Arte Ederretako Ministerioaren sorrera, 1900ean; Lehen Hezkuntzako maisu-maistrentzat zentralizazioa eta soldaten bermea, 1901ean; eta baita urte berean ere, nahitaezko eskolatzea 12 urtetaraino. Dena dela hezkuntza berrikuntza prozesu honetan, landa-gunea baztertua izan zen. Horrela, Espainiako Estatu osoan ez zegoen landa-eskola itxurazkorik, eta zeuden eskolak bere erara utzita zeuden edota pedagogikoki hirietako eskolen arabera antolatuta zeuden, landa-guneko errealtatea kontutan hartu gabe.¹⁰

xix. mendearen amaieratik aurrera, garatu zen gaztelaniazko alfabetatze prozesuak Euskal Herriko landa-guneko neska-mutil gehienentzat egoera aldaketa ekarri zuen. Errealitate gordin hau oso ezaguna zuen J.M. Egurennek; ikuskari honek 1859etatik 1976era, Gipuzkoako eta Arabako eskolak bisitatu baitzituen eta gogor lan egin zuen eskoletan eta hortik kanpo ere gaztelera ezartzeko.¹¹ Aipaturiko ikuskatzailak, ondo askorik zekien euskal herritar gehienek, ohituraz, euskaraz hitz egiten zutela¹² eta beraz, hau zela hurrek ikasten zuten lehen hiz-

¹⁰ Jose María Hernández Díaz, «La escuela rural en la España del siglo xx», *Revista de Educación*, no. Extraordinario (2000): 113-136; Pauli Dávila (coord.), *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo xx* (Madrid: Biblioteca Nueva, 2004).

¹¹ Pauli Dávila y Ana Eizagirre, «Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria», en *Leer y Escribir en España, doscientos años de alfabetización*, coord. Agustín Escolano (Madrid: Fundación Sánchez Ruipérez, 1992), 195.

¹² J.C. Larronderen arabera, 1876ko Ladislao Velascoren estatistikei jarraituz, euskal hiztunen kantitatea eta biztanle-dentsitatea honako hau izango zen: «Gipuzkoa 176.000tik 170.000 (140.000ek eskuarki erabiltzen dute); Bizkaian 183.000etatik 149.000 (Balmaseda-Enkarterri barrutian 28.000 pertsona daude euskaraz hitz egin ez dutenak, hauei Bizkaian bizi diren 6.000 atzeritar gehitu behar zaizkie: mende bukaeran kopuru hau igo egingo garapen industrialak erakarrirako langile immigrazioaren ondorioz; Araba, 120.000 biztanletik 12.000 (probintzia hau aspalditik erabat «deseuskaldunduta» zegoen eta Bizkaiko muga ondoan zituen bere gun eus-

kuntza —ikuskariak bereziki egoera hau aldatu nahi zuen, bere metodoaren sarreran azaltzen zuen bezala—. ¹³ Egoera hau bereziki nabarmena zen baserri-gunetan, bertako biztanlegoa hiriguneetatik urrundutako auzo eta barreiatuko baserrietan bizi baitzen. Auzo haue-
tan hezkuntza-gabeziak hiri-gunetan baino asko handiagoak ziren eta honek eragina izango du alfabetatze tasetan. ¹⁴

Industria-iraultzaren zabalkundearekin eta baita merkatuen batzearen ondorioz, populazioaren alfabetatzea agintarien lehenetasuna bihurtu zen, bai hiri-gunetan eta baita landa-gunetan; populazio hau, bereziki, Gipuzkoa eta Bizkaian euskal hiztuna zen. ¹⁵ Eskolak gutxi zeudelako edo ikasleak baserriko-lanetan aritzen zirelako, haur eta gazte asko haur eskolara joan gabe gelditzen ziren edo bakarrik urte garai zehatz batzuetan joaten ziren. Kontutan izanik eskola publikoa ez zela iristen baserri-gune askotara, arazoa konpontzeko, beste neurri butzuen artean ere landa-guneko eskola txiki partikularrak, *escuelitas rurales* deiturikoak, sortzeari ekin zitzaion.

Eskola-txiki hauek auzoetako udal instituzioek, pertsona partikular, guraso eta auzoko apaizen ekimenez ireki ziren. Eskola hauen helburu nagusia Dotrina Kristaua euskaraz ematea zen. Eskolak, titulurik gabeko maisu-maistren, hots, apaiz, sakristau eta *seroraren* (eleizaren zaintzaz arduratzen ziren emakumeak) ardurapean zeuden eta neska-mutil euskaldunei euskaraz irakasten zitzairen. *Eskola-txiki* hauen hezkuntza-ildoak, auzoko apaizek zehatutakoa izaten zen, eta hauen pentsamoldea gehienetan garaiko elizarena zen, hau da pentsamolde

kaldunak: Aramaio, Villareal, Laudio). Horrela Ladislao Velascoren arabera, 1867an hiru probintzietan 479.000 biztanletik 331.000 euskaraz hitz egiten zuten. Jean-Claude Larronde, *El nacionalismo vasco: su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri* (San Sebastián: Ediciones Vascas, 1977), 132.

¹³ Pauli Dávila, *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)* (San Sebastián: Ibaeta Pedagogía, 1995), 88-92.

¹⁴ Luis Castells, *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la restauración (1876-1915)*, 14.

¹⁵ Baina kontutan hartu behar da, Pauli Davilak adierazten duen bezala, alfabetatze eta industria-
lizazio erlazioa ez dela kasu guztietan ematen. Horrela 1930eko Arabako erroldan- nekazal probin-
tziak izanik- ikus dezakegu alfabetatuen zerrendan aurrenetako postuetan azaltzen zela, %22,48
pertsona letragabeekin, jarraian Gipuzkoa % 25,51 letragabeekin eta Bizkaia % 27,31 letraga-
beenekin —probintzia bietan industriak indar handia zuen— eta Nafarroa % 29,24ekin. Pauli Da-
vila, *Lengua escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX* (Donostia: EHU, 1998), 80.

tradizionalista eta euskaltzalea. *Eskola-txiki* hauek, nahiz eta apustu nazionalista nabarmenik ez egin, gerra ondoren jazarpena jasan zuten eta bertako maisu-maistra asko zigortuak izan ziren izan ziren, abertzaleekin bat egin edota harremana izan zutelako.

Gipuzkoan, 1920an, landa-guneko *eskola-txiki* —landa-eskola partikular osatugabeak— hauen kopurua 73ra iristen zen.¹⁶ 1930ean, 74 landa eskola-txiki zeuden —diruz lagundutakoak kontatuz—, eta hauetara 3.666 neska-mutil joaten ziren.¹⁷ Eskolarik ez zegoen auzoetan, Gipuzkoako Diputazioak mikeleteen zerbitzua ere erabili zuen,¹⁸ horrela hainbat auzoetan, mikelete-postuetan eskolak jarri ziren.¹⁹ Baina eskola hauek sortzea eta mantentzeak ez zuen landa-guneko hezkuntza arazoa konpondu.

Beraz, Euskal Herrian emandako alfabetatze ereduari dagokionez, honako berezitasunak azpimarratzea beharrezkoa da: eskola hizkuntza gaztelania izan zen gehienbat eta ondorioz hizkuntza horretan alfabetatu ziren haur gehienak, udal instituzioen garrantzia eskola hauen mantenuan, eta euskarazko katiximaren erabilera alfabetatze baliabide bezala. Errealitate honen aurrean, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek lehentasunezko helburutzat hartu zuten landa-gunetako hezkuntza garatzea.

¹⁶ Archivo General de Gipuzkoa-Gipuzkoako Artxibategi Orokorra, (AGG), Tolosa (Gipuzkoa). (JD IT 1874).

¹⁷ AGG (JD ITF 1460/2056).1934 Ikuskaritza, Errezilgo, Artzalluz bailarako eskola. Baserri batzuetan eskola deitzen zaie oraindik, xx mende hasieran eskola emateko eraltzen zen gelari. Horrela berretsi dute artikulu egileek, 2003an Oñatiko (Gipuzkoa) Larrañe auzoko Sarramendi baserriko biztanleei eginiko elkarrizketan.

¹⁸ Joxe Garmendia, «Mikelete postuetako eskolak», *Hik Hasi* 62 (2001): 41-43. xix mende bukaeratik, 1936ra arte, Gipuzkoako Mikeleteak, zeregin administratiboak eta mugen zaindari lanak egiten zituen talde armatua izan ziren. Mikeleten postutan eskolan ezartzeko Diputazioak proiektu bat azaldu zuen, egitasmo hau aurreikusi bezala garatu ez arren, 5 postutan landa-eskolak ireki mar txan egon ziren.

¹⁹ AGG, (JD IT 1457,2). Landa-gunetan eskolak irekitze eskaerei buruz. 1924ko irailaren 17an, Donostiako 381 zenbakiko Komandantziako Gipuzkoako Mikeleteen Teniente Koronel Buruak zera zioen «behin baino gehiagotan, hurbildu dira mikelete postuetara herrietatik urrun dauden baserrietako haurren gurasoek zera eskatuz: mikeletek probintziekiko duten zeregina utzi gabe eta libre duten uneetan baserriarren seme-alabei erakutsi zezatela irakurtzen, idazten eta baita ere beste zenbait ikasgai». Nahiz eta 14 eskola irekitzeko egitasmoa aurreikusi, lehen esan bezala, 5 eskola bakarrik ireki.

1. Taula. Analfabetismo Tasa Estatu espainiarrean eta Euskal Herrian (1900-1920)

Urtea	Estatu espainiarra	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Nafarroa	
	Proporzioa	Populazioa	Proporzioa	Populazio	Proporzioa	Populazio	Proporzioa	Populazio	Proporzioa
1900	63,7%	33.054	34,2 %	90.594	46,2%	145.553	46,7%	137.221	44,6%
1910	59,3%	31.456	32,3%	92.222	40,6%	142.733	40,7%	135.539	43,4%
1920	52,2%	27.064	27,4%	90.419	34,9%	133.970	32,7%	121.332	36,7%

Iturria: Pauli Dávila: *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)* (San Sebastián: Ibaeta-Pedagogía, 1995), 188.

1914an Gipuzkoako Diputazioak egindako galdeketa, irakaskuntza-aren egoera tamalgarria azaltzen zen.²⁰ 1921ean, udalerrien erantzunak aztertu ondoren, irakaskuntza-aren egoera eskasaren arrazoi bezala hizkuntza-aren arazoa eta atzerriko irakasleen presentzia azpimarratzen ziren.²¹ Bere txostenetan, udal erakundeek, ikasle askok gaztelaniaz adierazteko zuten zailtasuna eta klasea gaztelaniaz ematearen inkoherentzia adierazten zuten:

Lo apropiado es que los maestros posean el idioma vascongado, mejor que sean vascongados y que los nombramientos los haga la Diputación provincial o que los maestros fuesen nominados por los Ayuntamientos por los beneficios que reportaría esto. Así se evitaría que los maestros se encontrasen abandonados y mejoraría la enseñanza. En los pueblos completamente vascos, es absurdo aprender todo en castellano, se necesitan textos en vascuence.²²

²⁰ AGG (JD IT 1455). Horrela justifikatzen zituzten udalek eskolaratze et alfabetatze tasa baxuak: 1. Gurasoen utzikeria eta borondate txikia; 2. Lanerako okupazio, nekazal lanak eta arrantzan; 3. Zailtasun topografikoak eta baserrien arteko distantziak; 4. Irakaskuntza-aren kalitate eskasa, etengabeko irakasle aldatzea, betegabeko postuak ordezkatzeko zailtasunak eta maisu titularrik eza. 5. Hizkuntza-aren arazoa, batzuetan ikasleen latsa aipatzen da maisu erdaldunei zuzentzeko. Ohar hauek hainbat udalerrietan jasotakoak dira, hots, Ataun, Berastegi, Zegama, Segura, Usurbil, Amezketa, Zegama, Zestoa, Aretxabaleta, Astigarraga, Getaria, Antzuola, Aretxabaleta, Ataun, Aia, Legazpia, Elgeta, Orío, Soraluze, Villabona, Elgeta, Hernani, Erreterria, Eskoriatza, Asteasu.

²¹ Dávila, *La profesión del magisterio*, 111-112.

²² AGG (JD IT 1874). Ibarra, Eskoriatza, Lazkao eta Leaburuko udaletako oharrak, 17 de diciembre de 1920.

Los padres se quejan de que el maestro carece de lengua vasca y no les enseña la doctrina en dicha lengua y además a los niños por carecer de lengua castellana no le atienden al maestro, aunque este ponga su buena voluntad. Esta es la causa por la que la mayoría asiste a la escuela particular de Cestona. Necesidad de una maestra, en vez de un maestro, con la condición de que sepa el euskera.²³

Ikuskaritza ere jakinen gainean zegoen, eskola hauetara zihoazen haur gehienek ez zekitela euskara.²⁴

La instrucción es primitiva y aunque tienen algunos textos en castellano, solamente es para saber leer, pues toda la enseñanza la hacen en vascuence (barrio de Urkia). Aunque la instrucción es en euskara se encuentran muy adelantados (barrio de San Esteban).²⁵

Diputazioko Irakaskuntza Batzordeak ere berresten zuen zentzugarberia pedagogikoa zela ikasleei ezagutzen ez zuten hizkuntza batetan eskola ematea.²⁶

Bizkaiko eskolen errealitateak, Gipuzkoakoarekin antzekotasun handia zuen. Bizkaiko irakasle gehienek azpimarratzen zuten beren urteko oroitidazkietan ikasleek gaztelania ez jakiteak zekarren eragozpena, hizkuntza honetan adierazten baitziren Bizkaiko maisu-maistra ia denak.²⁷ Belaustegigoitia, abertzale moderatuak, honela zioen «la mayoría de las

²³ AGG (JD IT 1874). Aizarnazabalgo udaleko oharra, 1920.


²⁴ Archivo General de la Administración (AGA), Madrid. «Memoria del inspector Sanz Rahora, L. de 1906, sobre Gipuzkoa», Leg. 6202: «Landa-eskola doazen haurrek gaztelera ez jakiteak, beharrezkoa egiten du hizkuntza horretan irakasteko intuiziozko prozedurak erabiltzea, ikasleak jaso ditzaken ezaguera guztien oinarri. Prozedurak hauek material egokia beharrezkoa dute maisu-maistren lana errazteko».

²⁵ AGG (JD ITF 1460/2054). 1932ko Ikuskaritza.

²⁶ 1921eko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Diputazioaren saioko akta. «Euskal lurraldean ugariak dira euskara ezagutzen ez duten maisuak eta beste asko ere bai euskal haurrei zuten irakatsi eta hezitzeko beharrezko maila ez dutenak. Gipuzkoako herri askotan bertako haurrak ez dute beste hizkuntzaren menderatzen hori baita bakarrik ikasi dutena bere etxeetan, hauentzat tratu-txarra da maisu-maistrak ikasgaiak irakastea arrotz egiten zaien eta ezagutzen ez duten hizkuntza batean».

²⁷ Ander Delgado, «¿Amantes de Dios de la patria y de la familia?», *Educatio Siglo XXI* 34, no. 3 (2016), 47-64.

escuelas que podemos ver hoy son perjudiciales para el euskera; tanto las del gobierno enemigo, de creencias tibias, como aquellas escuelas creadas entre nosotros, ya sea por quien vista de rojo, o incluso de sotana».²⁸



1. Mapa. Diru-laguntza jasotzen zuten Gipuzkoako landa-gunetako eskola-txiki partikularrak (1936)²⁹

Iturria: Garmendia, La enseñanza rural en Gipuzkoa, 207-208. Egileek egindako mapa.

Nabarmendu behar da, eskola hau hiri-eremurako diseinatuta zegoela eta bere edukiek ez zutela bat egiten landa-guneko bizipenekin, ez bait zituen bere berezitasuna eta errealitate sozio-ekonomikoa kontutan hartzen. Lehen hesia hizkuntza zen, ikasleen ez baitzekiten gazteleraz

²⁸ Iñaki Zabaleta, «La enseñanza en los orígenes del nacionalismo vasco: la cuestión religiosa», en *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo xx*, ed. Pauli Dávila (Madrid: Biblioteca Nueva, 2004), 134.

²⁹

eta maisu-maistra euskaldunak gutxiengoa ziren (euskaraz mintzatzen zirenak, alegia).³⁰ Egoera honetan ulergarri da udal askok erakunde probintzialen parte-hartzea eskatzea irakaskuntzaren kudeaketan.

Euskal Herrian ematen ari ziren aldaketa berriekin eta bertako errealitate sozialarekin zerikusik ez zuen eskolaren ezarpenarekin, euskal komunitatea gero eta kontzienteagoa zen ideologia liberal berriak gainbegiratzen ari zela bertako nortasun-ezaugarriak, tradizioak eta hizkuntza. Egoera honi aurre egiteko euskaltzale mugimenduaren susperraldia ematen da, eta honek eragina izango du bertako hizkuntza, erlijio eta kulturaren defentsan. Mugimendu honen babesle izango dira zenbait udal eta probintziako indar politikoak.

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA ETA LANDA-ESKOLAK: AUZO-ESKOLAK ETA ESKOLA PROBINTZIALAK

xx. mendeko lehen herenean eman zen gertaera kultural garrantzitsuenetako bat, Eusko Ikaskuntza Elkartearen sorrera izan zen. Lehen aldiz, euskal nazionalistak, liberalak eta Euskalerrrikoek probintziaz gaindiko entitate bat bultzatu zuten. Proiektu honetan Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioen babesla izan zuten eta baita ere Baiona, Iruñea eta Gasteizko apezpikuena. 1918tik aurrera, Eusko Ikaskuntza Kongresuak antolatzen hasi zen.³¹ Jardunaldi hauetan, bertako kultura eta hizkuntzari zegokion hezkuntza aldarrikatu zen.³² Aurreneko Kongresuetan (Oñati 1918, Iruñea 1920 eta Gernika 1922) irakaskuntzarekin zerikusi zuten gaia asko landu ziren. Lehen Kongresuan, 1918an, Lehen Hezkuntzaren egoera eta historia aztertu ziren. Kongresu honetan Eduardo Landeta, Adelina Mendez de la Torre, Leoncio Urabayen eta Luis de Eleizalderen³³ ekarpena nabarmendu behar da,

³⁰ Cándida Calvo Vicente, «La enseñanza en la zona rural guipuzcoana en el primer franquismo», *Vasconia* 27 (1998): 166.

³¹ Idoia Estornés, *La Sociedad de estudios vascos. La aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)* (San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1983).

³² Garmendia, *La enseñanza rural en Gipuzkoa*, 148-157.

³³ Koldo de Eleizalde, idazle, pedagogo eta politikoa izan zen (Bergara, 1878-Bilbo, 1923). Bizkaiko Diputazioaren Hezkuntza Ikuskaria. Euskaltzaindiaren sorrerako partaide izan zen, sorrerako lehen lau euskaltzainen artean bat bera izan zen. Bere lan nabarmenetan honakoak aipatuko ditugu: *Razas, lengua y nación vascas*, 1911; *Morfología de la conjugación vasca sintáctica*, 1913; *Metodología para la restauración del euzkera*, 1918; *Euskal-zenbakistia, 1920 y Euskeraz irakurtzeko irakaspidea*.

herri honetako hezkuntzaren egoera eta hau hobetzeko proposamenak azaldu bait zituzten. Bigarren Kongresua 1920 egin zen, Iruñean, eta irakaskuntza eta gizarte-ekonomia arazoez aritu ziren.³⁴

Ez dugu alde batera utzi behar, lehen esan den bezala, xx. mende hasieran landa-gunetan eskola eredu hedatuena *eskola-txikiena* zela.³⁵ Eskola hauek, gurasoen ekimenez irekiak izan ziren eta laguntza txikia jasotzen zuten udal eta diputazioetatik.

Ekarpen desberdinak kontutan izanik, proposamen berriak aurkeztuko dira, batzuk ekinbide ofizial edo instituzionaletatik at lan eginez, eta beste batzuk ofiziala den eskola-sistematik lan egiten saiatuko dira. Azken mugimendu honek ibilbide motza izango du, abagune politikoaren baldintzapean egongo baita.³⁶

Eskola hauen bereizgarria ikasgeletan euskaraz irakastea zen.³⁷ Landa-gunean, auzo-eskolen eta eskola-probintzialen bitartez bertako populazio euskalduna eskolaratzea eta ikasgeletan berrikuntza pedagogikoa bultzatzea.

Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola-esperientzia hauen helburua errealtate hau hobeagotzea zen. Proiektu hauen bidez, eskola-eraikin berriak egin ziren eta eskola berrien eraikuntza arauak jarraituz, ikasgelak material berritzailez hornitu ziren eta bertan lan egin behar zuten

³⁴ Estornés, *La Sociedad de estudios vascos*, 73-91.

³⁵ Baina errealtate hau ez zen soilik Euskal Herrikoa; estatuko beste lurralde batzuetan antzera gertatzen zen. xx mende hasieran, Galizian ere, landa-eskolan oso urriak ziren, maisu-maistrak gaizki ordainduak eta gutxi prestatuak. Umeez eskola uzten zuten lana egin eta beren familiei laguntzeko eta eskolak xix mendekoak bezalakoak ziren: materialik gabe, ilunak, higiene gutxirekin, aireztapenik eta argiztapenik gabe. Egoera horretan ez da harritzekoa, landa-gune baztertu hauek auzotarrak, egoerari aurre egitea bere kontura eskola pribatuak sortuz, eskola hauen izena *escolas de ferrado*. Narciso de Gabriel, *Escolantes e Escolas de Ferrado* (Vigo: Xerais, 2001); Anton Costa, «*Escolas en contornas rurais en Galicia: horizonte difícil/horizonte posible*», *Innovación Educativa* 24 (2014): 33-153; Blanca Martínez, «La formación de capital humano en Galicia», *Revista Galega de Economía* 12, no. 1 (2003): 1-22.

³⁶ Pauli Dávila, «Curriculum vasco, agentes sociales y libros de texto en euskara hasta 1937», *Euskonews* 265 (2008): 12-19. URL: <http://www.euskonews.com/0465zbnk/gaia46504es.html>. (consultado el 11-01-2017)

³⁷ Instituzioetatik at eta hiri-gunean garatutako egitasmoetako aipagarri bat Euskal Eskolaren erdua izan zen. Proiektu honetan eskolaketa euskaraz solik eman zen, egitasmo abertzalearen barnean kokatzen zen eta erreferente izango a frankismo garaian sortuko diren Ikastolentzat. Esperientzia honetan eskola, euskal nazionalismoaren ikuspegitik irakatsiz, ikasle euskaldunak kontzientziatzeko baliabide izango da.

maisu-maistrei euskaldun eta tituludunak izatea exigitu zitzaien. Eskola hauen hezkuntza politika garaiko indar politikoen menpe egon zen. Bizkaiko auzo-eskolak euskal nazionalismoak bultzatu arren, izandako aldaketa politikoak hauen bilakaera baldintzatu zuen. Gipuzkoako landa-eskola probintzialesi dagokionez, ordea, esan behar da bere sustatzaileak euskaraz irakastea baino kezkatuagoak zeudela gune hauetako analfabetismoarekin. Kulturaren bereizgarri espezifikoena hizkuntzak irudikatzen duela kontutan izanik, landa-gunetan euskal kultura mantendu zen eguneroko bizitzan ere erabiliena zelako. Baina, azaldu den bezala, euskararen aldeko apustua agente politiko eta instituzioen aldetik oso eskasa izan zen eta gazteleran alde zegoen elebitasun diglosikoa.³⁸ Heziketa-metodologiari dagokionez, eskola hauetan pedagogia berritzailea hartzen zen kontutan eta erabiltzen zen materiala xumea baina berritzailea.³⁹

Bizkaiko auzo-eskolak

Baldintza politikoak aldekoak izanik, 1917an euskal nazionalistek Bizkaiko Diputazioa lortu zuten eta bere ekarpen pedagogikoetatik eta baita instituzioen bultzadetatik auzo-eskolen esperientziak aurrera egin zuen.⁴⁰ Baina esperientzia hau ez zen aurreneko saiakera izan, lehen ere 1896an Victoriano Gáldiz diputatuak eta 1911n Isidoro León diputatuak ahalegina egin zuten, baina beren proposamen hauek ez zuten aurrera egin.⁴¹ 1917tik aitzin, Bizkaiko Diputazioaren Instrukzio Publikoko Batzordea eta Kultura Batzordearen sorrerarekin batera,

³⁸ Paulo Iztueta, «Las contradicciones de la cultura vasca: Teoría y praxis», en *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, coord. Pauli Davila (Bilbao: Universidad del País Vasco, 1995), 349-50.

³⁹ Gregorio Arrién, *Educación y escuelas de Barriada en Bizkaia. Escuela y Autonomía 1898-1936* (Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1987), 165-175.

⁴⁰ 1917ko maiatzean, hauteskunde probintzia-hauteskundeen ondoren, Diputazio berria hautatu zen. Diputazio honen lehendakaria, Ramon Sota, hasieran R.M. Azkueren ikaslea izan zen, ondoren Londresko King's ere ikasi zuen. Hau zioen landa-gunetan ematen zen hezkuntzari buruz: «Bizkaiko landa-gunean, gazte ugari dago gazteleraz ez duena ezagutzen, eta euskaraz bakarrik mintzatzen direnak, gazte horiei lehen letrak gazteleraz irakasten zaie. Eta irakasten zaiona ez dutenez ulertzen, eskolatik ateratzen dira irakurtzen eta idazten jakin gabe, hots, denbora alperrik galdu dute» Bizkaiko Foru Aldundiaren agiritegi administratiboa. Diputazioaren 1917ko maiatzaren 4ko saioa (BOPV de 23-V-1917, n.º 114), 494.

⁴¹ Maite Paliza, *El proyecto de las escuelas de barriada su desarrollo (1919-1938) Una epopeya de la historia de la educación en Bizkaia* (Bilbao: Gobierno Vasco, 2015), 33.

euskal eskolaren ideia sustraitzen joan zen. Batzorde hauetan E. Landeta, K. Eleizalde eta J. Gallano bezalako pertsonaia kualifikatuak parte hartu zuten.⁴² Hauekin bultzadarekin, Bizkaiko Diputazioak saiatu zen lehen hezkuntza euskaraz zabaltzen:

Todos sabéis que en la parte rural de Bizkaia hay una masa muy importante de población joven que no conoce el castellano, que habla simplemente el euskera, a esa juventud se le enseñan las primeras letras en castellano. Y resulta que como no entienden lo que se les enseña, salen de las escuelas sin saber leer ni escribir, es decir que han perdido el tiempo. Es preciso que a esta parte de nuestra población se le enseñe en euskera, naturalmente que para ello tendremos que recabar del Estado una libertad absoluta de enseñanza conjuntamente con las otras Diputaciones.⁴³

1919ko azaroaren 26an aurkeztu zen Gallano mozioa, Juan Gallano diputatua izan baitzen hau aurkeztu zuen hautagaia. Mozioaren helburua, eskola berriak sortzea zen, analfabetismo tasak jaitsi eta bide batez probintzian zegoen kultur-eta hezkuntza desoreka murriztea, bereziki landa-gune eta meategietako auzoetan. Bizkaiko Auzo-eskolen proiektuak, letragabeen kopurua jaitea eta hezkuntza elebiduna ezartzea ekarri zuen. Halaber, ekimen honekin baserri eta itsasbazerretako biztanleen bizi-maila hobetzen saiatu ziren, barruti hauek garrantzi handia baitzuten euskal nazionalismoarentzat. Eskola hauetan emandako ikaskuntzak goraipamen handiak izan zituen, horrela zioen Eusko Ikaskuntzako Lehen Irakaskuntzako Batzordeak:

Una de las más grandiosas iniciativas que cabe esperar de una administración pública bien orientada al aproximar los centros de enseñanza a los más apartados lugares de población. Estas diputaciones vascas han servido un ejemplo práctico de lo que de construir el ideal de nuestro pueblo: el mantenimiento de su organización nativa y característica y el mejorar dentro de ese sistema natural su situación cultural. No son obstáculos a vencer la peculiar, natural y recomendable diseminación de la

⁴² Gregorio Arrién, *Educación y escuelas*; Dávila, *La política educativa*, 167-168.

⁴³ *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 23 de mayo de 1917.

población, ni la existencia de un idioma propio de la tierra. No son obstáculos, no son inconvenientes que haya que subsanar; son valores que posee el País Vasco, que hay que conservar, proteger y fomentar, creando soluciones adecuadas a una organización propia y no alterando ésta a la medida de fórmulas comunes preestablecidas.⁴⁴

Bizkaiko Diputazioko arkitektoa zen Diego Basterraren (1883-1959) kargu egon zen auzo-eskola hauen eraikuntza.⁴⁵ Eusko Ikaskuntzak, proiektu honen diseinuan parte hartu eta, beste eskakizunen artean, zera aldarrikatzen zuen: haurtzaindegitik euskarazko irakaskuntza ematea, euskarazko liburuak eta materiala erabiltzea eta eskoletan Euskal Herriko Geografia eta Historia ikasgaia ezartzea.⁴⁶

Horrela, urte hauetan Bizkaiko Diputazioak hezkuntza arloan egindako inbertsioetan, iguera handia nabarmentzen da. Proiektu honen birtatez Bizkaiko Diputazioak zera nahi zuen:

La creación de cincuenta Escuelas primarias de niños y cincuenta de niñas en un periodo de cinco años, en otras tantas barriadas o agrupaciones de más de diez familias cuyas viviendas disten por lo menos un kilómetro de la Escuela más próxima, gestionando al efecto la cesión gratuita del local más adecuado que dispongan los vecinos favorecidos y costeando la Excm. Diputación el material de enseñanza necesario y el sostenimiento de los Maestros, cuyo sueldo mínimo será de 3.000 pesetas. Consignación de la cantidad de 90.000 pesetas en los presupuestos del próximo ejercicio para la creación de las veinte Escuelas correspondientes al primer año.⁴⁷

⁴⁴ Arrien, *Educación y escuelas*, 196.

⁴⁵ Paliza, *El proyecto de las escuelas de barriada*, 84. Diego Basterra, ideología nazionalista zuen eta Bilbon zinegotzi izan EAJ alderdia ordezkatuz. Bilboko udal funtzionario izan zen 1919tik eta arkitektura Zerbitzua zuzendu zuen 1937 arte, urte horretan espetxeratu eta kartzelan egon zen eta 1940ra arte. Auzo eskolei dagokionez, prototipoak diseinatu, eraikinak ikuskatu, eta hauek irekitzeko eta itxeko baimenak kudeatu. Nahiz eta gehienetan bakarrik lan egin, Diputazioko Arkitektura Zerbitzuko delineatzailea zen Luis Elexabeitiaren (Deustun, 1889) laguntza jaso zuen.

⁴⁶ Joxe Garmendia, *La enseñanza rural en Gipuzkoa*, 154-155.

⁴⁷ Pedro Zufía, *Las Escuelas de Barriada en Vizcaya* (Bilbao: Imp. Provincial, 1930).

Bere sorreran, auzo-eskolak euskal-eskolak izateko xedearekin sortu ziren. Proiektu honek, hezkuntza sistema ofizialaren barnea eskola elebiduna bultzatu nahi zuen, honen suspertzaileen artean bi abertzale jakintsu nabarmenduko ditugu, E. Landeta eta K. Eleizalde. Zufia, eskola hauetako ikuskaria izandakoak, zera zioen: Diputazioak euskararen arazoari kasurik egingo ez balio, proiektuak porrot egingo zuela. Lan eraginkorrik ezin zitzaion eskatu landa-guneko maisu-maistrei hauek euskara ez bazuten menderatzen —lehen esan bezala, bertako ikasleak euskaldun elebakarrak ziren—.

Proiektu honek eraldaketa handiak jasan zituen 1919-1936 bitartean. P. Davila dion bezala, Liga de Acción Monárquica-k agintea hartu zuenean, proiektuak hasiera batean zituen asmoak bertan behera gelditu ziren. Koalizio hau abertzaleek lortutako nagusitasuna hausteko sortu baitzen eta 1919tik aurrera emaitza onak ateratzen hasi zen.⁴⁸ 1921ean Liga de Acción Monárquica-k hauteskundeak irabazi eta Bizkaiko Diputazioan agintea hartu ondoren, euskararen aurka jarri zen.⁴⁹ Hauen esanetan, euskal nazionalisten helburu bakarra euskara zabaltzea zen eta lehen hizkuntza euskara zuten haurrek, gaztelera ez ikastea. Horregatik Ligakoek auzo-eskoletan euskarazko testu liburuak debekatu egin zituzten.

Auzo-eskoletako aurreneko Proiektuan jartzen zuen eskola inguruneke ezaugarrietara egokituko zela, horrela Bizkaia hiru barrutietan banatzen zuen: itsasaldekoa, nekazaritzakoa eta industrialakoa.⁵⁰ Hizkuntza kontutan hartuz eskolak bi mailatan sailkatzen ziren A eta B. A mailakoak barruti ikasle euskaldunentzako eskolak ziren, bertan euskaraz irakasten zen eta gaztelera derrigorrezkoa ikasgaia zen; B mailako eskolak gaztelera zuten zeuden, gaztelera eskola hizkuntza zen eta euskara derrigorrezko ikasgaia zen.⁵¹

⁴⁸ Dávila, *La política educativa*, 170.

⁴⁹ Paliza, *El proyecto de las escuelas de barriada*, 39.

⁵⁰ Paliza, *El proyecto de las escuelas de barriada*, 191. Irekita zeuden 100 eraikinetatik, 1930ean 83 landa- gunean zeuden, 9 gune-industrialetan eta 1 itsasbaterreko eremuan.

⁵¹ *Reglamento de Escuelas de Barriada de Vizcaya* (Bilbao: Imprenta provincial, 1921), 35.



2. Mapa. Bizkaiko auzo-eskolak (1921-1934)⁵²
 Iturria: Paliza, *El proyecto de las escuelas de barriada*, 60-62, 66-68. Egileek egindako mapa.

Elebitasunaren gaia medio, hainbat eztabaida izan zituen Bizkaiako Diputazioak, alde batetik Espainiako Gobernuarekin eta baita Valladolideko Unibertsitateko aginte akademikoekin, honen menpe bait zeuden eskolak. 1921ean Unibertsitate honetako Erretoreak idatzitako irizpenean gaztelerazko hizkuntza eta gramatika erabiltzea derrigortzen zuen. Diputazioak aginteari men egin zion, horrela euskara irakaskuntzako lagungarri bezala utzi eta gazteleraz idatzitako liburuak erabiltzera derrigortu zituen maisu-maistrak.⁵³

Euskarazko alfabetatze prozesuan urrats handia izan zen eskola hauetarako euskarazko testu liburuak argitaratzea, horrela hezkuntzako liburu anitz idatzi ziren.⁵⁴ Aldaketa eta gorabehera politikoak medio,

⁵²

⁵³ Paliza, *El proyecto de las escuelas de barriada*, 65.

⁵⁴ Arrién, *Educación y escuelas*, 210-211. Aipatzeko da lehen irakurketa-liburua, 1897an sortu zela, Arana-Goirik, *Umiaren lenengo aizkidea* argitaratu zuenean. Ondorengo urteetako argitalpenak urriak dira, horrela, 1918tik aurrera hasiko dira euskarazko eskola-liburuak argitaratzen.

hezkuntza eredu berri bat osatzen ari zen.⁵⁵ Liburu-ekoizpen honek nabarmen jartzen zuen, landa-guneko hezkuntzaz gain, euskal curriculum baten beharra.⁵⁶ 1922an eskoletan testu liburuak debekatu ziren eta kaxixima A eremuko eskoletan bakarrik baimendu zuten.

Auzo-eskolen proiektuan bi ikuskariak nabarmendu behar dira, K. Eleizalde sorreran eta P. Zufia 1924tik 1937ra.⁵⁷ Zufiak, Bizkaiko Auzo-eskolei buruz idatzitako Memorian, adierazten zuen proiektua hasi eta 8 urteetara jadanik 100 eskola eraiki zirela, eta hasieran aurreikusitako proiektua ia erabat amaituta zegoela.⁵⁸

Baina 1936ko altxamenduak auzo-eskola hauen funtzionamendua baldintzatu zuen. Gerra Frontean zeudenak itxi egin ziren, besteak 1937ko apirila arte normaltasun erlatiboez funtzionatu zuten. Erregimen berriak agintea hartu eta berehala, bere lehen ekimena errepublikarekin edo euskaltasunarekin zerikusi zuen dena desagerraraztea izan zen, irakasleak zigortuz eta euskararekin eta erreformarekin zerikusi zuen guztia deuseztatuz. Frankismoaren orientazio akademikoak, nazional-katolizismoaren balio ideologikoak berretsi zituen eta pobrezia nagusi zen testuinguruan, aginte berriarentzat euskal irakaskuntza eta berrikuntza pedagogikoa ez ziren izan lehentasunak. Espainiako ideologia nazionalistak, ezin zuen euskal abertzaletasuna berragertzea baimendu.

1937ko ekainaren 23ko Dekretu-legeak, Bizkaia eta Gipuzkoaren Kontzertu Ekonomikoa bertan behera utzi zuen, eskola hauen mantentzeko beharrezkoa zuten euskarri ekonomikoa kenduz. 1937ko azaroaren 24ko Aginduekin, Diputazioak sortutako auzo-eskola guztiak Estatuaren agindupera pasa ziren. Agindu hau 1938ko apirilaren 18koarekin osatu zen, irakasleen ordainketak, eskubideak eta betebeharrak arautuz.⁵⁹

⁵⁵ Arrién, *Educación y escuelas* 172-173.

⁵⁶ Gurutze Ezkurdia Arteaga, «Euskal Herria gaiaren garapena xx. eta xxi. mendeetako testuliburuetan», *Ikastaria*, 16 (2008): 109-142; Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia y Karmele Perez, *Euskal Curriculum ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?* (Donostia: Utriusque Vasconiae, 2004).

⁵⁷ Paliza, *El proyecto de las escuelas de Barriada*, 87.

⁵⁸ Eskola hauen berri jakiteko P. Zufiak 1930ean aurkeztutako Memorian egiten duen deskribapenez baliatuko gara. Zufia, *Las escuelas de barriada en Vizcaya* (Bilbao: Diputación de Vizcaya, 1930).

⁵⁹ Orden de 18 de abril de 1938 (BOPV de 22 de abril de 1938, n.º 548), 345-346.

Gipuzkoako Diputazioaren landa-eskolak (1930-1938)

1914an eta 1920an eginiko inkestak, eta baita ere 1927an landa-eskolei buruz diseinaturiko egitasmoak, argi uzten dute Gipuzkoko instituzioek landa-eskolei buruz zuten kezka.⁶⁰ Hasieran Diputazioaren politika landa-guneko eskoletako maisu-maistrei diru-laguntza ematera mugatu zen, baina ikusiz hau ez zela nahikoa eta Bizkaiko auzo-eskolak kontutan izanik proposamen berri bat aurkeztu zuen.

Horrela, Diputazioko Lehendakaria zen Laffite Jaunak, 1930eko maiatzaren 1eko saioan, landa eskolen egoeraren deskribapena egin ondoren, adierari zuen baserrietako seme-alabentzat ez zegoela eskola egokirik. Aurkezpen hau aurreneko urratsak izan zen 100 eskola berri egitea aurreikusteen zuen proiektua martxan jartzeko.⁶¹ Gipuzkoan Proiektua onartu zenean gatazka sozial eta politikoa ugari zeuden.⁶² Horrela proiektuak eztabaida handiak sortzen zituen Gipuzkoako diputatuen artean, eztabaida gai izan ziren Eleizaren eginkizuna, irakaslearen soslaia, euskararen erabilerak...⁶³ Nahiz eta hasierako helburua 100 eskola eraikitzea izan zen, soilik 21 eskola eraiki ziren, bost urteetan.⁶⁴ Udalek eta Diputazioak suspertutako landa-eskolen hauen eraikuntza, oso loturik egon zen irakaskuntzan eta gizartean ematen ari zen modernizazio prozesuarekin.⁶⁵

Aldaketa sozio-ekonomikoa sasioi honetan, Diputazioa eta udalak izan ziren proiektu honen suspertzailea nagusiak, eta auzotarren ezin-

⁶⁰ Txostena, hezkuntzaren arazoari irtenbidea emanez. Gipuzkoako Diputazioaren Akta, 1927ko abenduaren 28a.

⁶¹ 1930eko Gipuzkoako Diputazioaren akta: «Beharrezkoa da auzo-eskoletako ikasleei, hirietako ikasleei bezala kasu egitea, ez bait dugu ahaztu behar ibilbide luzeak egin behar izaten dituztela eskola joateko, horregatik eskola-kantinak eta beste onura batzuk eskaini behar zaizkie».

⁶² Emilio Lopez Adán, *El Nacionalismo Vasco (1876-1936)* (San Sebastián: Txertoa, 1977).

⁶³ 1930eko abenduaren 12ko Gipuzkoako Diputazioaren sesioko akta. Beste hainbat konturen artea zera nabarmentzen zen: «Denen gainera Elizaren eskubidea, landa-gunetan lehen mailako instruzio zentroak eraikitzerakoan, eta baita ere Diputazioak eraiki behar zituenak ikuskatzeko. Orain arte jarraitutako sistema, pedagogiaren aurkakoa erabat, ikasleek klaseak ulertzen ez zituzten hizkuntza batean jasotzen bait zituzten. Azpimarratzen da, baita, eskolan euskaraz hasi arren gazte-lera ere ikasi beharra izaten zutela, jendartean hoen zuen garrantzia kontutan izanik; Elren aholkularitza pedagogikoa eskatzen da proiektua garatzeko».

⁶⁴ Garmendia, *La enseñanza rural en Gipuzkoa*, 210-211.

⁶⁵ Ramón López, «La construcción y creación de escuelas en la España del primer tercio del siglo xx», *Historia de la educación* 16 (1997): 65-90.

besteko laguntza jaso zuten. Eragile hauetaz gain, proiektu honen bultzatzaileen artean hainbat nekazal eta gizarte erakunde aurki ditzakegu, hauen artean *Euzko Nekazarien Bazkuna-Asociación de Agrarios Vascos*, euskal nazionalismoarekin zerikusia zuen erakundea.⁶⁶ Eskola berrien hauen diseinua Diputazioko arkitektoak, R. Kortazarrek, egin zituen.

1931ko apirilaren 7an, landa-eskolen egoera eta beharrak ezagutzeko Eusko Ikaskuntzaren Lehen Hezkuntzako Komisioak Villalonga kondeak proposaturikoak «Gipuzkoako Landa-Eskolak sortu eta arautzeko oinarriak» onartu zituen.⁶⁷ Oinarri hauek ondorengo urtetan Diputazioak garatuko duen proiektuarentzat baliagarri izango dira. 1931ko maiatzaren 16an, Lehen Hezkuntzako Komisio honek adierazten zuen bertako ohiturak eta balioak kontutan hartu beharrekoak zirela eta irakaskuntza euskaraz ematea ezinbestekoa zela, bertako herritarrek hori erabiltzen baitzuten. Euskal kultura aintzat hartzearen garrantzia ere adierazten zuen, nabarmenduz eskolaren garrantzia kulturaren biziraupenean, horrela erdal eskolek euskara eta euskal kulturaren deuseztapena ekarriko zutelako adieraziz. Dokumentu berean, Komisioak, orain arte Diputazioak garatutako hezkuntza politika gaitzeste zuen, euskara baztertu izanagatik, jokaera honek baserritarren pentsamoldean eragin kaltegarria izan zula adieraziz, bere jatorrizko hizkuntza gutxietsiz, beraiek ere gutxiesten zituelako.

Que piensa que su idioma propio no le va a servir jamás para nada, que cree que el euskera es inepto para la enseñanza y que por ello desea abandonarlo, para sustituirlo por el castellano.⁶⁸

Dokumentu horretan adierazten zen, historikoki euskara baztertutako hizkuntza izan zela eta bere egoera esku-hartze politikoei lotua, horregatik bere erabilera eta bere garapen kulturala murriztua eta mu-

⁶⁶ Mikel Aizpuru Murua, «El agrarismo guipuzcoano y el nacionalismo vasco (1920-1933)», *Historia Agraria* 70 (2016): 180. Nekazal sindikatu eta erakunde ezberdinek *Anaitasuna-Hermandad* (1900), *Alkatasuna-Solidaridad* (1905), katoliko izendapena jaso zuten, eta beraiek helburuetako bat sozialismoari aurre egitea. 1931an *Euzko Nekazarien Bazkuna-Asociación de Agrarios Vascos*, nekazal sindikatua sortu zen, hau euskal nazionalismotik gertu zegoen, baina formalki independentea zen.

⁶⁷ AGG (JD IT 1874). Proiektu honi buruzko informazio osagarria: Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos, *Eusko Ikaskuntzaren Deia* 50 (1931) 8-10.

⁶⁸ AGG (JD IT 1874), 16 de mayo de 1931.

gatuta egon dela. Ondorioetan, Komisioak honako gomendioak gehitzen zituen:

- En el ámbito escolar, las escuelas se deberían de clasificar en dos grupos: A) Aquella en la que toda la enseñanza debe darse en el idioma vasco. En este grupo el estudio de la lengua castellana es materia obligatoria en todos los grados o cursos. B) Donde se procede a usar el castellano como idioma general para la enseñanza. El estudio de la lengua vasca es obligatorio en todos los grados. En ningún caso se justificaba un tercer grupo bilingüe.
- Respecto a los libros de texto, las obras escritas en lengua vasca la Diputación debía de tener en cuenta los informes de la Sociedad de Estudios Vascos u otras agrupaciones análogas, tal como la Comisión pro-euskera de la Diputación de Guipuzcoa.⁶⁹

Diputazioak eta Eusko Ikaskuntzak garatzen ari zen lan honek, kritika zorrotzak izan zituen abertzale batzuen aldetik. Horrela, *Aitzolek*, J. Ariztimuno,⁷⁰ Eusko Ikaskuntza kritikatu zuen, adieraziz bere Lehen Kongresuak euskal hezkuntzari eskaini izan arren, bere lana ekarpen teorikora mugatu zuela. Diputazio eta udal ekarpenei buruz *Aitzolek* azaltzen zuen, hauek inoiz ez ziotela euskarari benetako laguntzarik eskaini, une berezi eta konkretuetan ezik (horrela, Bizkaiko auzo-eskoei hasierako urtetan emandako laguntza).


Diputazioak, garatu nahi zuen proiektu berrirako, maisu-maistren kontratazioan, euskararen ezaguera eskatzen zen, hala ere proiektuaren zutabe izango zen Ikuskaria kontratatzerakoan ez zitzaion irizpide honi jarraitu. Hasierako Araudiak horrela proposatu arren,⁷¹ Ikuskari izateko

⁶⁹ AGG (JD IT 1874).

⁷⁰ José de Ariztimuño Olaso (1996-1936). *Aitzok* izengoitiarekin ezaguna, elizgizon, kazetari eta idazlea —euskaraz eta gazteleraz— izan zen. *Yakintza* aldizkariaren sortzaile eta *Euskaltzaleak* aldizkariaren zuzendaria. Apaiza izan arren, Gerra garaian detenitu eta fusilatua izan zen. Eusko Alderdi Jeltzalearen kide eraginkorra izan zen. Liburu ezagunenetakoa, *La democracia en Euzkadi. Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, 1935ean argitaratutakoa. Liburu hau *Ereinek*, Donostian berrargitaratu du.

⁷¹ 1931ko otsailaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. «Ikuskatzaile-plaza betetzeko baldintzak: Gipuzkoan jaiotzea edo bere gurasoak gipuzkoarrak izatea [...], baldintzak betetzen dituztenen artean euskara ezagutzen dutenak lehentasuna izango dute».

euskara ez zekien maistra bat aukeratu zuten kargu honetarako, Josefina Olóriz.⁷² Erabaki honek hainbat kritika jaso zituen.⁷³



3. Mapa. Gipuzkoako Diputazioaren landa-eskolak (1933-1936)

Iturria: Garmendia, La enseñanza rural en Gipuzkoa, 221-222. Egileek egindako mapa.

⁷² Josefina Olóriz Arzellus, Mar de Plata, Buenos Aires (Argentina) jaio zen 1894ko abuztuaren 27an. Lehen hizkuntzako ikasketan Mar de Platan egin eta Irakaskuntza Ertaina Donostia eta Madrilén egin zuen. Magisteritza ikasketak Donostian, eta Goi-mailako ikasketak Burgosen. Donostiako Irakasle eskolan irakasle katedradun laguntzaile postuan egon zen, 1914tik 1929ra. Lehen hezkuntzako ikuskari ere izan zen 1929tik 1964ra, urte horretan hartu baitzuen erretiroa. Diputazioako landa-eskolen ikuskaria ere izan zen, 1931ko martxoaren 25etik, 1937ko abuztuaren 15era, kargua utzi baitzuen. Udal zinegotzia izan zen 1925ean eta baita ere pedagogo teresiar garrantzitsua. Honi buruzko informazioa auki dezakegu Alcalá de Henaresko Archivo General de la Administración (AGA) sig. Top. 32 eta Gipuzkoako Aldundiko Agiritegi Administratiboan, espediente 3618. Espediente Josefina Olóriz. Teresiar instituzioan sakontzeko Francisca Rosique-ren liburua ikus daiteke, *Historia de la Institución Teresiana (1911-1936)*, Madrilén 1914an, Sílex argitaletxeak argitaratua.

⁷³ Jose Ariztimuño, *Obras Completas 2 La democracia en Euskadi. Lucha de idiomas en Euskadi y en Europa*. (Donostia: Erein, 1986), 256-262.

Gipuzkoako Diputazioaren lehen landa-eskolak 1933-1934 ikasturtean ireki ziren. Ikuspegi pedagogikoari dagokionez, Josefina Olóriz ikuskariak jarritako ildo jarraitu zuten. Honek lehentasuna ematen zion komunikazio zuzenari, fenomenoen interpretazioari eta txangoei, eta ikasgaiak buruz ikastea eta testu liburuen gehiegizko erabilera baztertzen saiatu zen. Maisu-maistrak euskaraz jakiteak asko erraztu zuen irakaskuntza, baina adierazi behar da eskola hauen funtsezko helburua ez zela euskaraz irakastea, baizik eta euskararen bitartez gaztelera ikastea, horrela erraztuz hizkuntza horretan idatzitako liburuen eza-guera.

Proiektua hau II. Errepublikaren hasierako urteetan bultzatu zuten, baina CEDAren biurtekoan geldiuena jasan zuen. Ondorengo urteetan, Fronte Popularrak ez zuen izan denbora errealik hitzartutako aldaketak abiarazteko. Eskola hauek diputazioko eskola bezala lau ikasturte igaro zuten. Hasierako egitasmoa 5 urtetan 100 eskola eraikitzea izan arren, hau ez zen garatu, batez ere baliabide ekonomiko ezagatik, baina baita ere zenbait udalen jarreragatik, errezeloz ikusten baitzituden eskola hauek. Ondorengo urtetan, proiektu hau ezabatuta eta beste aukerarik gabe, udal eta probintziako instituzioek *eskola-txikiak* diruz laguntzen jarraitu zuten

1938an, Gipuzkoari Kontzertu Ekonomikoak kendu zitzaizkion eta Diputazioaren eskola hauek Estatuaren mende egotera pasa ziren. 1937ko ekainaren 20an, era honetako 21 eskola zeuden, sei bi-koitzak (neska eta mutilen eskolekin) eta gainerakoak eskola bakunak (eskola mistoak) ziren. Urte horretarako beste lau eskola eraikitzea hitzartuta zegoen, baina ez ziren eraiki.⁷⁴ 1936ko uztailaren 18ko kolpe militarra ilusio eta proiektu askoren amaiera izan zen, hauen artean Diputazioko landa-eskolak. Erregimen aldaketarekin eta *Depurazio* batzordeekin⁷⁵ errepresioa iritsi zitzaizen diputazioaren eskolei eta oraindik irekita zeuden eskola-txikiei.⁷⁶ 1937ko azaroaren 24ko Agindua-rekin, Diputazioaren landa-eskolak Estaturaren mende egotera pasa

⁷⁴ Garmendia, *La enseñanza rural en Gipuzkoa*, 200-266.

⁷⁵ Archivo Universitario de Valladolid (AUV) Leg. 1350. 1936ko azaroaren 17an Valladolideko erre-toreak, Kultura eta Hezkuntza batzordera igorritako txostenean, azaltzen dira nortzuk diren *Depu-razio* Batzordeko partaideak, hauek artean Josefina Olóriz eta berari buruz dio "bere jarrera «hobe ezina dela.

⁷⁶ Gipuzkoako *Depurazio* Batzordea, 1938ko azaroaren 8ko, 66 zenb. Dekretuarekin sortu zen.

ziren. Gerra ondoren, Diputazioak argi zuen landa-eskoletan jarduteko euskararen ezaguera ezinbestekoa zela, baina zentzu honetan egin ziren proposamen guztiak Estatuko Administrazioak geldiarazi zituen. Frankisten pentsamoldean ez zen aintzakotzat hartzen eskoletan euskaraz irakastea.

BI PROIEKTUEN KONPARAZIOZKO AZTERKETA

xx. mende hasieran Euskal Herrian ematen ari zen aldaketa sozio-ekonomikoak, eta bere errealitate linguistiko bereziak, hezkuntza sistemaren aldaketa bultzatu zuen. Euskal probintzietako errealitatea linguistikoa kontutan izanik, bereziki landa-gunetan, bertako instituzioek ondo ohartzen ziren euskal kultura eta hezkuntza kontutan hartuko zuen eskola baten beharra. Premisa honetatik abiatuz, baina testuinguru ezberdinetan, Bizkaiko Diputazioaren auzo-eskolak eta Gipuzkoako Diputazioaren landa-eskolak antolatu ziren. Esperientzia hauek erreferenteak izan ziren, baina baldintzatuta egon ziren garaiko egoera politikoarekin.

Bi proiektuen abiaraztea

Bizkaian, 1917ko hauteskundeetatik ateratako Diputazioa aitzindari izan zen landa-guneko eskola-populazioari erantzungo zion euskal eskola berri bat eratzerakoan; horrela Bizkaiko Auzo-eskolen proiektua diseinatu zuten. 1919an Gallano mozioa onartu zen eta, honen ildo jarraituz 1920an Batzorde txostengilea bat osatu zuten, bertako partaideak besteak beste Koldo Eleizalde, Eduardo Landeta eta baita Juan Gallano eta Práxedes Aránsolo diputatuak zirelarik. Batzorde honen eraginez, 1921ean, Mendatako Albiz eskola eta Arratzuko Belendiz eskolak martxan zeuden.⁷⁷ Hasierako urtetan proiektuak irakaskuntza elebiduna proposatu arren, Diputaziora Liga de Acción Monárquica iritsi eta berehala oinarritzko aldaketak ideologikoak eman ziren. Nahiz eta hasierako planteamenduak ez mantendu, 15 urte pasa ondoren 120 auzo-eskola ireki ziren.⁷⁸

⁷⁷ Paliza, *El proyecto de las escuelas de barriada*, 59.

⁷⁸ Arrién, *Educación y escuelas de Barriada en Bizkaia*, 129-131.

1930ean, Gipuzkoa Diputazioak arrakasta gutxiko hainbat saiakera egin ondoren,⁷⁹ Landa-eskola Probintzialen proiektua aurkeztu zuen. Proiektu honen xede nagusia analfabetismoa errotik kentzea eta mendi-gunetan eskola berriak eraikitzea zen. Eskola hauetan euskaraz irakasten ziren lehen hizkiak, ondoren gazteleraz sakontzeko.⁸⁰ Lehen inauguratu ziren eskolak Zizurkil, Lezo, Legazpi, Oiartzun, Hernani eta Beasain izan ziren 1932an.⁸¹ 1936an 21 eskola zeuden irekita.

Esperientzia bietan, eskolen irekiera, kokapena eta antolakuntza Diputazioko Instruzio Publikoko Batzordeari zegokion. Batzordeak, eraginkorrago izateko asmotan, eskolen ikuskaritza orokorra, udalerrri ezberdinetako Udal Batzordearen esku lagatzen zuen (batzorde honetako partaideak herriko alkatea, apaiz-parrokoa, mediku titularra eta ikasleen gurasoen artetik aukeratutako hiru guraso izaten ziren).⁸²

Bi proiektuetako abagune politiko eta soziala ezberdina izan zen eta Gipuzkoako proiektuaren entitate txikiagoa. 1930ean, Bizkaiko Auzo-eskoletako aurrekontua 1.037.750 pezetakoa zen eta 1935ean, Gipuzkoako aurrekontuetan esleitutako kantitatea 269.926 pezetakoa.⁸³

Eskola eraikinak

Bizkaiko auzo-eskolak irekitzeko ezinbesteko baldintza zen base-ri-erlarteek edo bailaretako etxebizitzek eskola hurbilenetik gutxienez kilometro batetara egotea eta auzoak edo udalak leku aproposa eskaintzea. Eraikina, gehienetan, solairu batekoa izaten zen, eta bertan arkupe bat, ikasgela, komuna, materialen gela eta sukalde-jangela nabarmentzen ziren. Aldaketa bakarra ikasgela kopurua zen, hau ikasle

⁷⁹ AGG (JD IT 1874). 1927ko abenduaren 27 saioan, Diputazioko Irakaskuntza Batzordeak, probintziako landa-guneko lehen irakaskuntza hobea gozatzeko Arauen Proposamenei buruz txosten bat aurkeztu zuen, J. Rezola, J. Toledo eta V. Ibarra sinatua. Proiektuaren aurrekontua 234.000 pezetako zen baina, finantzaketarik ez zuelako, ez zen aurreikusi bezala bideratu.

⁸⁰ Cándida Calvo Vicente, «La enseñanza en la zona rural guipuzcoana durante el primer franquismo», *Vasconia* 27 (1998): 167. «Euskara erabiltzen den lurraldeetan —hots, Gipuzkoa osoan, esan daiteke— umeez lehen instrukzioa euskaraz jasoko dute, horrela ikasiko dituzte lehen letrak, gero gaztelera ikasteko».

⁸¹ Garmendia, «Gipuzkoako landa-auzoetan Udalek eta Aldundiak garatu duten hezkuntza-jarduera», *Ikastaria* 16 (2008): 193-225.

⁸² Zufía, *Las Escuelas de Barriada*. Juntas locales de Inspección.

⁸³ 1934ko abenduaren 27ko Gipuzkoako Diputazioaren akta.

kopuruak baldintzatzen baitzuen.⁸⁴ Auzo-eskola bakoitzaren kostua, ezin da zehatz-mehatz jakin, gehienak auzotarren borondatezko ekarpenei esker eraiki baitziren. Gregorio Arrienek dio, bataz-beste, eskola mistoen kostua 17.000 pezeta izan zezakela garai hartan eta 24.000 pezeta eskola bikoitza.⁸⁵



1. Argazkia. Hiruzubietako auzo-eskola mistoa, Ziortza-Bolibar. J. Garmendia

Eskola kopuruari dagokionez, 1925ean 77 eskola zeuden, 144 ikasgelekin eta beste hainbat maisu-maistrekin. 1930ean aipatutako 100 eskola zeuden (59 eskola bakunak —mistoak—, 38 bi ikasgelekin —bikoitzak—, 2 hiru ikasgelekin eta bat zazpi ikasgelekin; eskola bikoitzetan eskola bakunak zeuden, 27 eta eskola graduatuak 11) Diputazioak aurreikusita bezala, 148 maisu-maistra eta 5.810 ikasle baino gehiagorekin.⁸⁶ II. Errepublikan, beste 25 auzo-eskola berri ireki ziren, lehen zeudenez gain, horrela 1936an maisu-maistren kopurua 162 izatera zen eta

⁸⁴ Zufía, *Las Escuelas de Barriada. Los locales escolares*, atalean eskoletako eraikina eta bere banaketa azaltzen du.

⁸⁵ Arrién, *Educación y escuelas*, 139-158. 1920an udalei bidalitako zirkular eta galdeketak. Albiz-Mendatako auzo-eskolaren kasuan, eskola-eraikinaren kostua 25.000 pezetakoa izan zen, erabilitako lur saila barne.

⁸⁶ Zufía, *Las Escuelas de Barriada*. Apartado relativo a la organización pedagógica.

ikasle kopurua 6.321era.⁸⁷ Bizkaiko Auzo-eskolen zuzendaritza teknikoa Diego Basterra, probintziako arkitektoaren, ardurapean egon zen

Gipuzkoko Diputazioaren landa-eskolek Bizkaiko auzo-eskolak izan zituzten eredu, baina zenbait aldaketa eta hobekuntzekin. Gipuzkoan, Bizkaian bezala auzotarrek eta instituzioek ere parte hartu zuten: erai-kuntzaren kostuei dagokionez, Aurrezki Kutxa Probintzialak, %10 jarri zuen, Diputazioak % 25a eta zegokion udal eta auzotarrek gainerako %65a. 1936an, proiektuan zeraman atzerapena ikusiz, hasierako baldintzak aldatu ziren, horrela udalei eskatu zitzaien lursailak eskaintzea, 1.000-1.500 metro kuadro, eta lanaren kitapenerako %25 jartzea. Beste guztia Diputazioaren kontu joango litzateke.⁸⁸



2. Argazkia. Zizurkilgo diputazioko landa-eskola bikoitza. J. Garmendia

Eskola berri hauen diseinua, lehen esan bezala, Ramon Kortazarren (1869-1944) lana izan zen.⁸⁹ Proiektu biek Bizkaiko eta Gipuzkoako Di-

⁸⁷ Arrién, *Educación y escuelas* 147.

⁸⁸ *Boletín oficial de Guipúzcoa*, 1936ko ekainaren 1a.

⁸⁹ Ramon Kortazar (1869-1944). Arkitekto honek, eskola probintzial eskola gehienak eraiki zituen, hauek diseinatzekoan estilo neo-euskalduna jarraitu zuen, erregionalismo estilo deiturikoaren lekuko egokitzapena. Joxe Garmendia, Hilario Murua e Iñaki Zabaleta, «De la oscuridad de las aulas

putazioek jarritako arau arkitektonikoak jarraitu zituzten, hauek eskolaren planoan emateaz gain eraikuntzaren baldintzak ere ezarri zituzten. Eskola hauen bereizgarrietan nabarmendu behar da: argitasuna, aireztapena, kalitatea eskola-higienea eta espazioaren kalitatea.⁹⁰ Gipuzkoan, 1936an. Diputazioaren 21 landa-eskola zeuden irekita eta proiektuan beste 4.

Maisu-maistrak

Bizkaian, lanpostuen banaketa lehiaketa publiko bidez egin zen, deialdian oinarrien artean balio pertsonalak, ezaguera profesionala eta euskara ezagutzeari lehentasuna ematen zitzaion. 1930ean, irakasle-gaiak re kontutan izanik, A kategorian 3 maisu eta 122 maistra zeuden; B kategorian 13 maisu eta 41 maistra. Oposizio-lehiaketak ia urtero egin ziren, eta 1936 bitartean 13 promozio ezberdin izan ziren, 177 maisu-maistrekin. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko titulu ofiziala, gaitasun fisiko eta osasuna eta maisuen kasuan gutxienez 20 urte izatea eta maistren kasuan 18 urte.

Soldatei dagokionez, hasieran urteko 3.000 pezeta izan zen, ondoren igoera ezberdinak izan ziren 1929ko urriaren 1ean 3.500 igo zen, 1931an 4.000 pezetetara. Urteko soldata honek osagarriak zituen, horrela bosturtekoak, 250 pezeta aurreko biak eta 500 ondorengoak, dena dela soldataren muga 5.000 pezeta zen. Araudi zaharrean, erretiroko eskubidea borondatezkoa edo derrigorrezkoa izan zitekeela aipatzen zen.⁹¹

Auzo-eskoletan aritutako maisu-maistren artean Julene Azpeitiak (1888-1980) egindako lana nabarmenduko dugu.⁹² Beste maistra

de los caseríos a las exclusivas y peculiares escuelas rurales de la Diputación de Gipuzkoa (1931-36)», en *Espacios y patrimonio histórico-educativo*, eds. Pauli Dávila y Luis M. Naya (Donostia: Sociedad Española para el Estudio del Patrimonio Histórico-Educativo, 2016), 402-405.

⁹⁰ 2000. urteko apirilaren 26an Marina Fernandezi, J. Garmendia egindako elkarriketa. Maistra honek lehengo plaza lortu maistra probintzial postua lortzeko eginiko lehen lehiaketan.

⁹¹ Arrién, *Educación y escuelas*, 140

⁹² Zumaian jaio zen 1888 eta 1911an Valladoliden egin ziren oposaketetara aurkeztu zen eta aurrenekoa gelditu; ondoren bere lan pedagogikoa Bizkaiko auzo-eskoletan eta ikastoletan garatu zuen. 1925ean Bizkaiko Diputazioak antolatu zuen lehiaketa pedagogikoa irabiz zuen *Irakurri maite* lanarekin. Julene Bilboko Maisu Euskaldunen Elkarteko partaide izan zen, elkarte honek Bizkaiko auzo-eskolen antolakuntzan eraginkor izatea zuen helburu, baina eragin handirik ez zuen izan.

ugari ere aipatu daiteke, hauetako batzuk Eusko Alderdi Jeltzalearen emakunde mugimenduko, *Emakume Abertzale Batzako*, partaideak izan ziren, horrela Encarnación Velasco, Josefa Inés Aranzadi, Carmen Egia, Purificación Mandiola eta Consuelo Gallastegi.⁹³ Maistra bokazioa, euskararen ezagupena, pentsaera abertzalea eta emakume izanik auzo-eskoetako hautagai ezin hobeak ziren.



3. argazkia. Gipuzkoako diputazioko maistren formazioa. Marina Fernández

Gipuzkoan, maisu-maistrak Diputazioak izendatu zituen oposizio-lehiaketa egin ondoren. Titulu ofiziala izatea eta euskara jakitea (azterketa egin zitzaien) ezinbesteko baldintzak ziren. Hasierako oinarritzko soldata 4.000 pezetakoa izan zen, honi gehitu behar zitzaion ze-

Maistra honi buruz hainbat liburu idatzi dira, horrela, Laura Mintegi, *Julene Azpeitia. Bidegileak* (Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Kultura saila, 1987) eta Gregorio Arrien y José Javier Granja, «Reseña bibliográfica de Julene Azpeitia ehun urte mugan (1888-1988)», *Revista Internacional de Estudios Vascos*. Eusko Ikaskuntza: Donostia, 1990.

⁹³ Eusko Alderdi Jeltzalearen emakumeen erakunde bat zen, gerra aurretik ondoren ere eran handia izan zuen. Itziar Recalde, *Escuela y sociedad en Euskadi. La enseñanza primaria* (Salamanca: Universidad de Salamanca, 2001), 305. Policarpo de Larrañaga, *Emakume Abertzale Batza* (Donostia: Auñamendi, 1978).

gokion igoerak eta erretirorako eskumenak. Bi oposizio-lehiaketa egon ziren, 1932an eta 1935ean, eta plaza ateratako ia gehienak Teresiar Instituzioko ikasleak izan ziren. Proiektu honetako irakasle ia gehienak emakumeak izan ziren, salbuespena Juan Imaz, Zizurkilgo eskolan aritu zen maisua.

Gipuzkoan, 1933ko oposizioan plaza lortu zuten maistrek atal teoriakoa eta praktikoa zuen ikastaro bat egin zuten, Fraisoroko —Zizurkil— eskolan eta Donostian. Arlo praktikokoan landa-gunekon lanarekin zerkusi zuten gaiak landu zituzten.⁹⁴

Ikuskaritza

Bizkaiko auzo-eskolei dagokionez, Ikuskariaren ardurak honakoak ziren: eskolen ikuskaritza, maisu-maistrak pedagogia-arloan bideratzea, eta Hezkuntza Batzordea aholkatzea. Ikuskarien artean Koldo Eleizalde nabarmendu behar da, honek oposizioz atera zuen plaza beste 14 lehia-kideen artean,⁹⁵ eta 1919 eta 1923 bitartean Ikuskari izan zen. Eleizalderi, Pedro Zufiak jarraitu zion, 1924tik eta 1937ra.

Gipuzkoako Ikuskaritza Josefina Olorizen ardurapena egon zen. Ikuskaria maistra teresiarra zen eta garaiko berrikuntza pedagogikoan aditua, Poveda Aitak proposatzen zituen oinarri erlijiosoan defendatzaile sutsua eta horregatik Errepublikaren ideia askorekin desadostasunean egon zen. Batzuk estimatu arren, oso kritikatu izan zen indar errepublikazale eta nazionalistengandik. Nahiz eta aukeratua izan maistra euskaldunak zuzentzeko, ez zekien euskaraz —maisua-maistrek beren lanpostua lortzeko euskara frogatu behar izaten zuten—.

Eskola eta pedagogia antolakuntza

Bizkaiko auzo-eskolak, eskola mistoak, unitarioak eta bereziak edo graduatuak ziren; hauek gehienetan bi gradudunak izaten ziren.⁹⁶ 1926ko Erregelamenduaren arabera 5 eta 14 urte arteko ikasleak egoten ziren, maila ezberdinetan sailkatuta: prestakuntza, oinarrizkoa, erdikoa

⁹⁴ Acta de la Diputación de Gipuzkoa. 1933ko uztailearen 1a.

⁹⁵ Arrién, *Educación y escuelas*, 162.

⁹⁶ Arrién, *Educación y escuelas*, 160.

eta goi-mailakoa, bi urte maila bakoitzean.⁹⁷ Eskola erroldak ezin zuen gainditu ikasgelako 48 ikasleen kopurua.

Diputazioko eskola hauen berezitasun pedagogikoen artean, honakoak nabarmenduko ditugu: irakaskuntza publiko eta doakoa; kontutuan izanik eskolara joateko bide luze eta desegokiak izaten zirela gehienetan, eskola denetan Kantina jarri zuten, gunek honek sukaldea, arraska, eta jangela zituen; eskola liburutegiak ere ireki ziren eta 500 pezetatik 2.000a bitarteko hamar beka urteko ere ematen ziren. Jar-duera osagarrien artean hainbat ekarpen berri ekarri zituzten: Eskola-mutualitatea, Helduen-eskola, Eskola bidaiak helburu pedagogikoe-kin, Museoa, Erakusketak. Pedagogiari dagokionez, esan beharra dago uko egiten zela ikasgaiak buruz ikasteari eta liburuen gehiegizko erabilerari, eta honen ordez elkarrizketak, ariketa praktiko eta txangoak gomendatzen zirela. Programan azaltzen ziren ikasgaiak honakoak ziren: Instrukzio morala eta erlijiosoa (Katixima eta Eskritura Santuak), Hizkuntza (irakurketa, idazketa eta gramatika). Aritmetika eta Geometria (kalkulua, buruketak, sistema metriko hamartarra,...), Zientzia fisiko naturalak (nekazaritzarekin erlazioa zuzenean), geografia eta Historia (auzoaren ezagupena, herria, probintzia,...), Fisiologia eta Higienea (garbitasun pertsonala, etxekoa eta soziala), Irakaskuntza praktikoak (marraskia, nekazal-lanak, etxeko lanak), Eskulanak (egurra eta burdinarekin, saregintza...), Kantuak, Soinketa.⁹⁸

Eskola hauen antolakuntzan oinarrizko eztabaida zer hizkuntzatan irakatsi izan zen. Horrela, Auzo-eskolak bi mailetan antolatu ziren, A eta B eredua. A ereduan, irakaskuntza euskaraz ematen zen eta gazteleraz derrigorrezko ikasgaia zen, B ereduan gazteleraz irakasten zen eta euskara derrigorrezko ikasgaia.⁹⁹ Hasierako urteetan, Eleizalde ikuskarria izanik, eskola hauen xedea euskal eskola elebiduna sortzea izan zen, baina Liga Monarquico-aren eta Primo de Riveraren iritsierarekin,

⁹⁷ Zufia, *Las Escuelas de Barriada*. Lehenengo Araudian (ADV Legajo-paper sorta-2731), Eskola asistentzia-aldia sei eta hamahiru urte bitartekoa izaten zen eta hiru zatitan banatua: Oinarrizko ikastaroa (6tik 8 urtera), Erdi-mailako ikastaroa (8tik 10 urtetara) eta Goi-mailako ikastaroa (10etik 13 urtetara). Ikasgaiak antolatzerakoan, ikasturte, maila eta herri bakoitzaren bereizgarriak kontutan hartzen ziren.

⁹⁸ Zufia, *Las Escuelas de Barriada*. Antolakuntza pedagogikoari eta eskola-programari dagokion atalak.

⁹⁹ Diputación de Bizkaia, *Escuelas de Barriada de Vizcaya. Moción Gallano: estatutos, reglamento, plan de cuadros y enseñanza* (Bilbao: Imp. Provincial, 1921).

aurreko ikuspegia erabat aldatu zen. Monarkikoak erraz egokitu ziren erregimen berriari, baina sozialista eta nazionalistentzat ez zen batere erraza izan. 1925ean, urriaren 16ko Erret aginduak, eskolak irekitzea bultzatu arren, honako baldintzak jartzen zituen.¹⁰⁰

3. Irakaskuntza beti gazteleraz emango da.
4. Eskola hauei, eskola nazionaliei egiten zaion eran, Estatu Lehen Hezkuntzako Ikuskaritzaren bisita jasoko du eta edozein arazoren aurrean horren berri eman.

Sakoneko aldaketan hauekin, ezabatua gelditu zen A ereduko geletan irakaskuntza euskaraz irakatsiko zela adierazten zuen 1921eko Erregelamendua.

Gipuzkoako landa-eskolei dagokionez, Diputazioaren nahia izan zen Bizkaiko auzo-eskolen ereduari jarraitzea. 1930ean, Josefina Olorizek, Gipuzkoako Ikuskariak, Bizkaiko eskoletara bisita egin zuen bertako auzo-eskolen antolakuntza aztertzeko. Gipuzkoako eskolen planteamendu pedagogikoa ikuskari honen ikuspegi pedagogiko eta Bizkaiko auzo-eskolen ildoari jarraituz burutu zen. Horrela, ikasgaiak buruz ikastea baztertu eta lehentasuna eman zitzaion justizia eta egiarekiko maitasuna suspertzeari eta arte eta naturarekiko interesa pizteari. Antzeko helburuak ere ikus daitezke Espainiako estatuan argitaratutako hainbat programetan.¹⁰¹ Metodologia dagokionez orain arte erabiltzen zen galdera eta erantzunak, definizioak ikastea... metodologia baztertu eta lan praktikoa eta erabilgarria aldarrikatu zuen. Gipuzkoan martxan jarritako proiektuaren iraupen laburrak, honi buruzko azterketa bat egitea galarrak izan zuten. Ikuskaritzat ere ia ez zuten izan aukerarik proiektuaren garapenari buruz txostenik idazteko.

Azpmarratzekoa da, 1931tik aurrera, ezkerreko gobernu agintzen egon zen bitartean, eskoletan erlijioa ematea eta ikonografia erlijiosoak debekatuta egon zela. Debekua legea bete arren, eskola hauetako maisu-maistra gehienek eta Ikuskariak ez zeuden erlijioaren aurka.¹⁰²

¹⁰⁰ 1925eko urriaren 16a. R. O. del (BOPV de 31-XI-1925, folio 1.057, n.º 247).

¹⁰¹ AADG, Espedientea 36-18. 1931ko apirilaren 1eko Hezkuntza Batzordearen bilera.

¹⁰² AGA Sección Educación, Leg. 192-58, del 2.X.1940. Ezkerreko erakundeen aldekoa izateaz akusatatu zuten Delfina Perez buruz eginiko *Depurazio* txostenean zera adierazten zen: «Umeek ez dute bere dotrina klasea emateari utzi, nahi eta eskolan debekatua egon hau irakastea». Alderdi ezker-

Eskola materiala

Aztertu diren bi proiektuetan eskolako material gehiena Diputazioek doan emandako izan zen. Horrela eskolak material finko eta mugikor modernoenez hornitu ziren. Bizkaiko eskoletan, aurreneko urteetan, euskarazko testu-liburuak erabili ziren. Hasierako liburuak lehiaketa publiko bidez aukeratuak izan ziren; hauen artean aipa ditzakegu: *Euzko erixen edesti laburra*, Eugenio Urroz eta Gabriel Manteloren, *Ume euzkeldunen laguna (lenengo eta bigarren edazkija)* Joseba Altunarena eta *Azijerea ta Ozazunbidea*, C. de Jemeinena.¹⁰³ Eleizaldek ere, *Euzkal-Zenbakiztia*, oinarritzko aritmetika, testu liburua ere idatzi zuen. Silabarioak eta euskarazko lehen mailako dotrinak ere idatzi ziren, horrela, *Euzkeraz Irakuñteko ta lenengo irakuñkizunak* eta *Kristiñau Ikasbidea*. Testu hauek, gehienetan, bizkaitarrez idazten ziren eta ortografiari dagokionez, Sabino Aranak jarritako arauak jarraitzen zituzten. 1920an Eusko Ikaskuntzak, eskola hauentzat bereziki, argitaratu liburuen artean honakoak aipatuko ditugu: Lopez de Mendizabalen *Umearen laguna, irakurtzen ikasteko biderik érezena*, eta B. Estornés-en *Sabin Euskalduna*. Hauetaz aparte, beste hainbat testu-liburu eta argitaratu ziren ai ezberdinak jorratuz, Aritmetika, Zientziak, Geografia eta Historia. Baina jendarte abertzalea hoberen islatzen duen liburua *Xabiartxo, Umeei euskeraz irakurtzen erakusteko idaztia* da.¹⁰⁴ Adierazi behar da hizkuntza bateratu bat ez izateak, nabarmen atzeratu zuela beste hizkuntzatatik, hots, gaztelera edo frantsezetik itzultitako testuen agerpena.

Monarkikoek Bizkaiko Diputazioa eskuratu zutenean, hasierako hezkuntza elebiduna baztertu eta euskara gaztelararen euskarri edo eta dotrina ikasteko bakarrik baimendu zuten. Horrela, euskarazko liburuak debekatu eta gaztelera idatzitakoak erabiliko dira.

Gipuzkoako landa-eskolen proiektu berriak, Bizkaiko auzo-eskoletarako sortutako liburuen berrerabilpena ekarri zuen eta baita ere

tiar baten aldekoa izateaz akusatua izan zen Tolosako San Blas eskolako M.L. Olano maistra eta bere txostenean zera adierazten zen « maistra honek, Fronte Popularraren Gobernu agintean egon arren, maistra honek eskola orduetatik kanpo, dotrina irakasten zuen».

¹⁰³ Arrien, *Educación y escuelas*, 172-173.

¹⁰⁴ 1925ean, Diktadura garaian, I. Lopez de Mendizabalek *Xabiartxo* liburua aurkeztu zen. Liburua honek «Euskalerraren-Alde» elkartearen saria jaso zuen. Bere irudiak *Txiki-k* egin zituen.

euskarazko liburu berrien argitalpena. Aurrez aipatutakoen artean Gipuzkoan ere oso erabilia izan ziren Ixaka Lopez de Mendizabalen, *Xabiertxo, umiei euskeraz irakurtzen erakusteko idatzia* (1925), eta *Martín Txilibitu: Umearen laguna* (1931). Baita ere Fermín Iturrioren *Txomin Irakasle* (1931) eta *Lutelesti edo Jeographia*. —Geografia orokorra eta eskualdetako, bi hizkuntzetan—,¹⁰⁵ Bernardo Estornés Lasaren, eta *Txikik* marrazkiz osatua, *Sabin euskalduna* (1931) eta *Nekazaritzako irakurraldiak-Lecturas Agropecuarias* (1933).¹⁰⁶ Beste liburu eta material egokirik ezean, gehienetan, eskolako ikasgaia maistrak banatzen zituen apunteekin jorratzen zen.

Gaztelera-zko liburu erabilienak Palau Vera y Seix Barral argitaletxe-koak ziren, hauen artean: *Lecturas Geográficas, Historia Universal, Geometría, Lecciones de Cosas, Geografía Física y Astronomía y Aritmética*. Material mugikorrari dagokionez (mahaiak, bankuak eta material pedagogikoa), Espasa Calpe Etxea zen landa-eskola probintzialak hornitzen zituen.¹⁰⁷

Garbiketa prozesua eta eskolen ezabapena

Matxinatuek hasieratik gogor saiatu ziren, bereziki euskal probintzietan, hezkuntza sistemaren kontrola bereganatzen, eta ondoren etorri zen garbiketa ideologikoa.¹⁰⁸ Behin boterea hartu ondoren, agintari kolpisten ikusmira irakasleen garbiketara, errepresiora, bideratu zen. Honi buruz, bi xedapen garrantzitsuak nabarmendu behar dira: 1936ko azaroaren 8ko Agindua eta urte bereko abenduaren 7koa.¹⁰⁹

Bizkaiko Diputazioako 463 langile izan ziren behin-betiko kanporatuak, eta hauen artean 35 auzo-eskoletako maisu-maistra. Lan-postuetatik kanporatuak izan ziren, bere jokaera zigor bezala tipifikatuak ze-

¹⁰⁵ Acta de la sesión Diputación de Gipuzkoa de 16 de junio de 1932.

¹⁰⁶ Acta de la Diputación de Gipuzkoa, 28 de julio 1932.

¹⁰⁷ AGG (JD IT 1457/2002).

¹⁰⁸ Hilario Murua, *La enseñanza primaria y el magisterio en Gipuzkoa, 1936-1975* (Bilbao: EHU-UPV, 2007), 44-61.

¹⁰⁹ Maitane Ostolaza, *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo, 1936-1945* (Donostia: Ibaeta-Pedagogía, 1996), 101-170.

goelako matxinatuek ezarritako legedi berrian.¹¹⁰ Horrela zigortuak izan ziren Fronte Popularrarekin zerikusia izandakoak edo bere eskola eredu babestu zutenak, eta bereziki maisu-maistra abertzaleak edo euskararen alde nabarmendu zirenak.¹¹¹

Gipuzkoan, errepresioa eskola probintzialetara¹¹² eta landa eskola-txikietara ere iritsi zen.¹¹³ Maisu-maistra ugari bere lanpostuetatik aldentuak izan ziren, hauetako gehienetan bere pentsaera politikoagatik. Maisu-maistrak ugarik garbiketa-prozesua jasan zuten eta beraien eskolak itxi zituzten. Gerraren bukaerak berarekin ekarri zuen, baita, mi-keleteen eta hauen kargu zeuden eskolen desagertpena.

1938ko apirilean, landa-eskola probintzialak Espainiako eskola nazional izendatuak izan ziren.¹¹⁴ 1938ko azaroaren 24aren Aginduaren bidez, Diputazioaren eskola hauek Estatuko eskolak bihurtzeko arautegia onartu zen eta aurrerantzean Hezkuntza Nazionaleko Ministerioaren esku gelditu. 1938tik aurrera, Kontzertu Ekonomikoak bertan behera gelditu ziren eta Diputazioak, landa eskola-txiki askorentzat zegoen laguntza moztu zuen. Pobrezia handia izanik, itxi ez ziren eskola txikiak baldintza eskas eta larrietan iraun behar izan zuten.

ONDORIOA

xx. mendearen lehen herena, aldaketa sozial eta politiko sakoneko garaia izan zen. Hezkuntzari dagokionez, modernizazio prozesuaren erronka nagusia maisu-maistra ez koalifikatuak, material eta eraikin desegokia eta eskola-absentismoa tasa handia zituen eskola, hots, ahaztua eta baztertua zegoen eredu sustraitik aldatzea izan zen. Helburua eskola berriak eraikitzea eta analfabetismo tasa gutxiagotzea izan zen, bereziki landa-gunetan.

¹¹⁰ Arrién, *Educación y escuelas*, 203. Arrienek azaltzen duenez, Bizkaian 92 berriro ere bere karguetara itzuli ziren eta 35 kargutik kendu, bere jokaera zigortua eta horrela tipifikatua zegoelako..

¹¹¹ Arrién, *Educación y escuelas*, 631-635.

¹¹² AUV, Legajo 2718, sarrerako agiria 11.III.1937. Tolosako M.^a Luisa Olanok eta Oiartzungo Del-fina Perezek, kontrako txostenak zituzten.

¹¹³ 1937ko otsailaren 11ko Gipuzkoako Diputazioaren akta eta Joxe Garmendia, egileak, zuzenean elkarrizketa pertsonaletan jasotako informazioa. 1937an eskola-txikietan lanean jardun eta zigortuak izan ziren maisu-maistren kopurua 20tik gorakoa zen.

¹¹⁴ Itziar Rekalde, *Escuela, educación e infancia durante la guerra civil en Euskadi*, 305.

Bizkaiko auzo-eskolak eta Gipuzkoako landa-eskola probintzialak berriak eraikiz, landa-guneetan zegoen hezkuntza desoreka zuzendu nahi izan zen. Eredu berriak, ondo hornitutako eraikin berriak ekarri zituen —frontoia, kantina, berogailuak, liburuak—, baita irakasle formatua —tituluarekin eta elebiduna—, eta dena doan. Era honetako eskolak izatea, luxuzko aukera zen, orain arte ezagutu gabeko aukera. Eskola hauek auzotarren aldetik atxikimendu handia izan zuten.

Baserrietako eta landa-guneko berezitasunak kontutan hartzen zituena hezkuntza proiektu honek mugarri garrantzitsua izan zen haurren eskolatze eta alfabetatze prozesuan, bereziki Bizkaian. Diputazioek Proiektu hauen honen bidez, Estatuak eskola nazionaletan egiten zuen antzeko lana egin zuten: eskolen eraikuntza zuzendu eta parte hartuz; eskola-altzariak eta materialak eskainiz; irakasleen soldataren kargu hartuz eta beraien hautaketa, ordainketa, orientazio pedagogikoa eta kontrola eginez.

Hasera batean diseinatu ziren eran bi egitasmo hauek garatu izan balira, dudarik gabe eragin izugarria izango zuten euskal baserritarren formazioan. Esperientzia biak konparatuz, esan dezakegu bien testuinguru politiko eta soziala ezberdina izan zirela, eta Gipuzkoko kasuan, baliabide gutxiago izanik, bere garrantzia eta hedapena txikiagoa izan zela.

Espainiar iparraldean gerra bukatuta egonik, Gobernu frankistak Bizkaiko eta Gipuzkoako landa-eskola hauek, eskola nazional izendatu izan zituen, 1938an, eta altxamenduarekin lerrotu ez ziren maisu-maistrek jazarpen gogorra sufritu zuten. Aipatu behar da eskola hauetako maisu-maistra asko alderdi abertzaleen jarraitzaileak eta militante zirela. Alderdi abertzaleekin bat egin zuten eskola-txikietako maisu-maistrek ere errepresioa jasan zuten.

1938an, irekita zeuden 21 eskolen kargu egin zen Estatuak, eta ez zion ekin aurreikusita zeuden 79 eskolen eraikuntzari. 100 landa-eskola berri eraikitzea, lortu gabeko nahi bat izan zen. Kontu berdina gertatu zen Bizkaiko auzo eskolekin, hauek ere eskola nazionala bihurtu ziren eta egitasmoa bertan behera gelditu zen. Egoera hau izanik, landa-guneko hezkuntza arazoa ondorengo urteetan konpondu gabeko erronka izaten jarraitu zuen.

Bukatzeko azpimarratu behar da, landa-eskola hauen izugarritzko ekarpena, euskararen irakaskuntza, alfabetatze eta berritze pedagogikoa bultzatuz, beren gabezia eta gora-behera guztiekin. Nahiz eta epe motzean izan, gune horietako ikasle eta gurasoek, aukera izan zuten hezkuntza eredu berritzaile bat gozatzeko, orain arte pentsaezina zena.

Gaur egun, XXI. mendeko bigarren hamarkadan, zerbitzu, hizkuntza eta egoera sozio-politikoari dagokionez errealitate oso ezberdina izanik, baieztatu dezakegu alfabetatzea eta euskararen irakaskuntza, landa-gunetan ere, gaitutako ikasgaia dela. Etorkizunari begiratur, XX. mende bukaeran eman zen konzentrazio prozesua gaitutzea eta eskolen egoera suspertzea, zerbitzu berriak irekiz, izango da gaitutu beharreko erronka. Horrela, biztanle gutxi dituzten udalerrietan edota herri erdigunetik urrun dauden auzo sakabanatuetan, Hezkuntza sailak, gurasoek eta irakasleek, eskola publiko euskaldun eredu berri bat bultzatzen ari da, Eskola-Txikien eredu. 1987an sortutako eskola hauetan -adin ezberdineko taldeekin osatua eta Eskolaurrea eta Lehen Hezkuntza elkartuz sei gela baino gutxiagorekin daudenak- haurrak tokiko kultura, ohitura eta biziera gordez hasten dira. Azpimarratzeko da, eskola hauetako asko beharrezkoak direla despopulatzeari aurre egiteko eta ezinbestekoak landa-herri txiki hauetan etorkizun jasangarria lortzeko. *Eskola-Txiki* berri hauek —26 Gipuzkoan, 14 Bizkaian, eta 10 Araban— landa guneko eskolen etorkizuna dira, eta nahiz eta kopuru txikia izan euskal hezkuntza sisteman, balio kualitatibo handikoak dira.

Egileei Buruz Oharra

JOXE GARMENDIA LARRAÑAGA, UPV/EHU ko irakasle agregatua da Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. Magisteritzan diplomaduna (1981), Pedagogian lizentziatua (1993) eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Doktorea (2003), doktore tesiaren izenburua *Enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los ayuntamientos 1900-1950*. Bere ibilbide akademiko eta profesionalean hezkuntzaren historiarekin zerikusi duten ikerketa proiektu ugarietan parte hartu du. Euskal Herriko hezkuntzarekin zerikusi duten hainbat artikulua eta liburu idatzi ditu, batzuk aipatzekotan: *Movimiento popular y resistencia frente al sistema educativo franquista: las Ikastolas, Ordizia Hiri Hezitzailea, Azkoitiko bailaretako eskolak 1824-1977* eta *Las escuelas rurales de Gipuzkoa. El proyecto de las escuelas*

provinciales 1930-1950. Pauli Dávilak zuzentzen duen GARAIAN, Ikerketa talde kontsolidatutako partaide da, talde hau EHU / UPVko «Hezkuntza, Kultura eta Gizartea», Prestakuntza eta Ikerkuntza Unitateko partaide da. Parte hartu du baita migrazioari buruzko hainbat nazioarteko ikerketa proiektuetan, Felix Etxeberria katedradunarekin batera.

IÑAKI ZABALETA IMAZ, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua, Pedagogian Doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) irakasle titularra, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko partaide eta Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean irakasle. Gestio lanei dagokionez, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean Dekanoa izan da, Zuzendaria Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailean, baita ere Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gobernu Kontseiluko partaide.

Hainbat ikerketetan parte hartu du. GARAIAN, (Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuen Taldea)- Ikerketa talde kontsolidatutako partaide da. Bere ikerketa lerro nagusiak honakoak dira: hezkuntza politika, euskal nazionalismoa, haurtzaroa, euskal eskola, alfabetatzea, lanbide formazioa, irakasleak, eta abar. Halaber, hainbat liburu eta artikulua argitaratu ditu, hauen artean: *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*; *Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorreran*. Beste ikerlariekin hainbat lan argitaratu ditu «The construction of the Basque Fatherland: religion, nationalism and education (1895-1931)», eta abar.

HILARIO MURUA CARTÓN, irakasle agregatua da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean. Magisteritzan diplomaduna (1992), Pedagogian lizentziatua (2000) eta Pedagogian Doktorea (2003), doktore tesiaren izenburua *La Enseñanza Primaria y el Magisterio en Gipuzkoa, 1936-1975*. Bere ibilbide profesionalean Hezkuntzaren Teoria eta Historiarekin zerikusi duten ikerketa proiektu ugarietan parte hartu du. Euskal Herriko Hezkuntzarekin zerikusi duten hainbat liburu eta artikulua idatzi ditu, batzuk aipatzekotan: *La Enseñanza Primaria y el Magisterio en Gipuzkoa, 1936-1975*, *100 años de La Salle en Gipuzkoa*, *La Formación Profesional en Euskal Herria: evolución y agentes promotores durante el franquismo*. Pauli Dávilak zuzentzen duen Garaian, Ikerketa talde kontsolidatutako partaide da, talde hau EHU/UPVko «Hezkuntza, Kultura eta Gizartea», Prestakuntza eta Ikerkuntza Unitateko partaide da. Parte-hartu du, baita, migrazioari buruzko hainbat nazioarteko ikerketa proiektuetan, Felix Etxeberria katedradunarekin batera.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- Aizpuru Murua, Mikel. «El agrarismo guipuzcoano y el nacionalismo vasco (1920-1933)». *Historia Agraria* 70 (2016): 167-194.
- Álvarez Junco, José. *Mater Dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*. Madrid: Taurus, 2001.
- Ariztimuño, Jose. *Obras Completas 2. La democracia en Euzkadi. Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*. Donostia: Erein, 1986.
- Arpal Jesús, Begoña Asua y Paulí Davila. *Sociedad y Educación en el País Vasco*. San Sebastian: Txertoa, 1982.
- Arrién, Gregorio. *Educación y escuelas de Barriada en Bizkaia. Escuela y Autonomía 1898-1936*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1987.
- Bilbao, Begoña, Gurutze Ezkurdia y Karmele Perez, *Euskal. Curriculum a la Euskal Dimentsioa Curriculumean?*. Donostia: Utriusque Vasconiae, 2004.
- Calvo Vicente, Cándida. «La enseñanza en la zona rural guipuzcoana en el primer franquismo». *Vasconia*, 27 (1998): 166.
- Castells, Luis. *Modernización y dinámica política en la sociedad Guipuzcoana de la Restauración (1876-1915)*. Madrid: Siglo XXI, 1987.
- Costa, Anton. «Escolas en contornas rurais en Galicia: horizonte difícil/horizonte posible». *Innovación Educativa* 24 (2014): 33-153.
- Dávila Pauli y Ana Eizagirre. «Alfabetización y euskaldunización en Euskal Herria». En *Leer y Escribir en España, doscientos años de alfabetización*, coordinado por Agustín Escolano, 187-211. Madrid: Fundación Sánchez Ruiperez, 1992.
- Dávila, Pauli. «Curriculum vasco, agentes sociales y libros de texto en euskara hasta 1937». *EuskoNews* 265 (2008). URL: <http://www.euskoNews.com/0465zBK/gaia46504es.html>.
- Dávila, Pauli. «Euskal Herria tiene forma de corazón». *Historia de la educación* 27 (2008): 215-243.
- Dávila, Pauli. *La política educativa y la enseñanza pública en el País Vasco (1860-1930)*. San Sebastián: Ibaeta Pedagogía, 1995.
- Davila, Pauli. *Lengua escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*. Donostia: EHU, 1998.
- Delgado, Ander. «¿Amantes de Dios de la patria y de la familia?». *Educatio siglo XXI* 34, no. 3 (2016): 47-64.
- Diputación de Vizcaya. *Escuelas de Barriada de Vizcaya. Moción Gallano: estatutos, reglamento, plan de cuadros y enseñanza*. Bilbao: Imp. Provincial, 1921.
- Estornés, Idoia. *La Sociedad de estudios vascos. La aportación de Eusko Ikaskuntza a la cultura vasca (1918-1936)*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 1983.

- Ezkurdia Arteaga, Gurutze. «Euskal Herria gaiaren garapena xx. eta xxi. mendeetako testuliburuetan». *Ikastaria* 16 (2008): 109-142.
- Gabriel, Narciso de. *Escolantes e Escolas de Ferrado*. Vigo: Xerais, 2001.
- Garmendia Joxe, Hilario Murua e Iñaki Zabaleta. «De la oscuridad de las aulas de los caseríos a las exclusivas y peculiares escuelas rurales de la Diputación de Gipuzkoa (1931-36)». En *Espacios y patrimonio histórico-educativo*, editado por Paulí Dávila y Luis M. Naya, 402-405. Donostia: Sociedad Española para el Estudio del Patrimonio Histórico-Educativo, 2016.
- Garmendia, Joxe. «Gipuzkoako landa auzoetan Udalek eta Aldundiak garatu dute hezkuntza-jarduera». *Ikastaria* 16 (2008): 193-225.
- Garmendia, Joxe. «Mikelete postuetako eskolak». *Hik Hasi* 62 (2001): 41-43.
- Garmendia, Joxe. *La enseñanza rural en Gipuzkoa. La labor de la Diputación y los Ayuntamientos, 1900-1950*. Bilbao: Universidad del País Vasco, 2004.
- Gellner, Ernest. *Naciones y nacionalismos*. Madrid: Alianza 1988.
- Hernández Díaz, Jose María. «La escuela rural en la España del siglo xx». *Revista de Educación*, no. Extraordinario (2000): 113-136.
- Hobsbawm, Eric. *Naciones y nacionalismo desde 1780*. Barcelona: Edición Crítica, 1991.
- Iztueta, Paulo. «Las contradicciones de la cultura vasca: Teoría y praxis». En *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, coordinado por Pauli Davila, 349-50. Bilbao: Universidad del País Vasco, 1995.
- Larrañaga, Policarpo de. *Emakume Abertzale Batza*. Donostia: Auñamendi, 1978.
- Larronde, Jean-Claude. *El nacionalismo vasco: su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*. San Sebastián: Ediciones Vascas, 1977.
- Letamendia, Francisco. *El hilo invisible*. Bilbao: EHU/UPV, 2013.
- Lopez Adán, Emilio. *El Nacionalismo Vasco (1876-1936)*. San Sebastián: Txertoa, 1977.
- López, Ramón. «La construcción y creación de escuelas en la España del primer tercio del siglo xx». *Historia de la educación* 16 (1997): 65-90.
- Martínez, Blanca. «La formación de capital humano en Galicia». *Revista Gallega de Economía* 12, no. 1 (2003): 1-22.
- Mintegi, Laura. *Julene Azpeitia. Bidegileak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurilaritza-Kultura saila, 1987.
- Murua, Hilario. *La enseñanza primaria y el magisterio en Gipuzkoa, 1936-1975*. Bilbao: EHU/UPV, 2007.
- Núñez Seixas, Xosé Manoel. *Los nacionalismos en la España contemporánea siglos XIX y XX*. Barcelona: Hipòtesi, 1999.
- Ostolaza, Maitane. *El garrote de la uración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo, 1936-1945*. Donostia: Ibaeta-Pedagogía, 1996.

- Paliza, Maite. *El proyecto de las escuelas de barriada su desarrollo (1919-1938) Una epopeya de la historia de la educación en Bizmaría*. Bilbao: Gobierno Vasco, 2015.
- Recalde, Itziar. *Escuela y sociedad en Euskadi. La enseñanza primaria*. Salamanca: Universidad de Salamanca, 2001.
- Riquer Borja de. *Escolta Espanya. La cuestión catalana en la España liberal*. Madrid: Marcial Pons, 2002.
- Rosique, Francisca. *Historia de la Institución Teresiana (1911-1936)*. Madrid: Sílex, 1914.
- Rubio Pobes, Coro. *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*. Madrid: Biblioteca Nueva, 2003.
- Tivey, Leonard. *El Estado Nación*. Barcelona: Nova Gràfic, 1987.
- Zabaleta, Iñaki. «La enseñanza en los orígenes del nacionalismo vasco: la cuestión religiosa». En *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*, editado por Pauli Dávila, 89-142. Madrid: Biblioteca Nueva, 2004.
- Zufía, Pedro. *Las escuelas de barriada en Vizcaya*. Bilbao: Diputación de Vizcaya, 1930.